



Jon Irazabal gogoratu dute M31ko ekitaldian

Astelehenean, Gerediagak eta Kriskitinek oroimen ekitaldi hunkigarria egin zuten Durangoko bonbardaketa gogoratzeko. Aurten, Jon Irazabal omendu dute eta gogora ekarri dute iurretarrak Durangoko bonbardaketa ahanzturatik ateratzeko egindako lan nekaezina / 4



**"LYONEN JOKALARI
ETA PERTSONA
LEGEZ ASKO
HAZI NAIZELA
SENTITZEN DUT"**

Eider Garcia berriztarrak urte bi daramatza Frantziako errugbi liga nagusian jokatzeko. Espainiako errugbi selekzioko deialdietan ere ohiko jokalaria da / 20

Eider Garcia, Espainiako selekzioko deialdi batean

"Lanean jarraitu behar dugu bide indarkeriaren kontagailua zero izan dadin"

Saretzen egitasmoaren atal berrian, ANBOTO Rosa Trinidadegaz batu da, istripuen kontrako aktibista ezagunagaz / 2-3



Rosa Trinidad Stop Bide Indarkeria elkartearen presidentea da.



Txapelketa astelehenean aurkeztu zuten, Trabakua Behekoa jatetxean.

Afizionatuetan erreferente den Biharko Izarrak txapelketa martxan da / 21



Adineko gidariei zuzenduriko saio bat, Durangoko nagusien egoitzan.

Lanean, trafiko istripuak ahalik eta gehien murrizteko

Errepideetako istripu kopuruak behera egin du azken hogeitun urteetan, eta datuek egonkortze joera erakusten dute, baita Durangaldean ere. Hala ere, adituek arretarik ez galtzera deitu dute. Oraindino gehiago jaitsiarazi gura dute istripu kopurua

Ekaitz Herrera ISTRIPUAK

Azken 25 urteetako datuei erreparatzea besterik ez dago Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako errepideetako istripuen kopurua aldatzen dabilela ondorioztatzen. Istripuek 2001. eta 2004. urteen artean jo zuten sabaia, eta, harrezkero, beheranzko joera izan dute, harik eta azken urteotan errepideetako biktima kopurua egonkortu den arte. 2003an, adibidez, 175 lagun hil ziren Euskal Autonomia Erkidegoko errepideetan; 5.935 lagunek zauri arinak izan zituzten, eta 810 lagunek zauri larriak. Hogeitun urte geroago, 2023an, datuak asko aldatu ziren: 38 hildako izan ziren, 3.301 lagunek zauri arinak izan zituzten, eta 320 lagunek zauri larriak. Nabardura gutxi batzuk gorabehera, egoera hori egonkorra izan da azken hamar urteetan, baita Durangaldean ere. Azken hamar urteotako biktimadun istripu kopurua 30etik 40ra arteko tartean mantendu da eskualdean. Gaian adituak diren erakundeek ere

datuen bilakaera positiboa azpimarratzen dute, baina hori bai, lasaitasunerako deia barik, adi egoten eta arretaz gidatzen jarraitzeko deia egin dute. Istripuen kopurua zero izatea dute helburu.

Eta zerk eragin ote du beherakada eta egonkortasun hori? Erantzunetariko bat puntukako gidabaimenean egon daiteke. Espainiako gobernuak 2006an sartu zuen indarrean puntukako gidabaimena, trafiko istripuek sabaia jo eta gutxira, eta ordutik hona Durangaldean ere agerikoak dira puntukako gidabaimenak ekarritako aldaketak. 2014an, poliziak 158 puntu kendu zituzkien eskualdeko errepideetako gidariei alkoholaren gehieneko muga igarota gidatzeagaitik. 2022an

ALKOHOLA DA, ORAINDINO ERE, PUNTUAK KENTZEKO ARRAZOI NAGUSIA DURANGALDEAN


kopuru horrek behera egin zuen, 84 puntu kendu zituzten arrazoi beragaitik. Edozelan ere, badirudi oraindino ere alkoholaren eraginpean gidatzea dela puntuak kentzeko arrazoi nagusia Durangaldeko errepideetan. 2022ko datuek horixe diote.

Bide segurtasunagaz arduratuta dauden elkarteek, Stop Bide Indarkeriak, adibidez, lanean jarraitzeko eta herritarrek gidaritza arduratsuan hezteko programak garatzen dituzte. Orain dela gutxi, hainbat saio egin dute adinekoekin, adin batetik aurrera gidatzeak ekarri ditzakeen arriskuez ohartarazteko. Bestalde, Ikusi eta Ikasi argazki lehiaketa ipini dute martxan, irudi arduratsuen bitartez kontzientzia zabaltzen jarraitzeko.


Honako erreportaje hau Saretzen egitasmoaren ale berria da, Tokikom barruko hedabideek eta EITBk elkarlanean ondutako egoeraren erakusleho. ANBOTOK trafiko istripuen gaia landu du Saretzen egitasmoaren barruan.

Hiru grafiko, hiru ertz

Biktimadun istripuak EAEko errepideetan



Bilakaera. Irudi honek 2000. eta 2023. urteetan Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako errepideetan izandako biktimadun istripu kopurua agertzen du. Hildakoak, zauritu arinak eta zauritu larriak ageri dira bertan. Beherakadaren ondoren, istripuek egonkortasuna adierazten dute.



Durangaldeko egoera. Grafiko honetan, 2014tik 2023ra Durangaldeko errepideetan izandako biktimadun istripu kopurua azaltzen da. Biktima kopurua igo egin zen 2016an, eta egonkor mantendu da harrezkero, 30-40 biktimako tartean.

Gidabaimeneko puntuen galera Durangaldean



Puntukako gidabaimena. Espainiako gobernuak 2006an sartu zuen indarrean puntukako gidabaimena. Azken hamar urteetan behera egin du Durangaldeko errepideetako gidariei erretiratutako puntu kopuruak. Baina joera batzuek bere horretan segitzen dute, alkoholpean gidatzeak, kasu.



Rosa Trinidad Stop Bide Indarkeria elkarteko presidentea da.

"Jendea halako egoera latzetan hiltzea saihestu behar dugu"

ROSA MARIA TRINIDAD CORONADO STOP BIDE INDARKERIA ELKARTEKO PRESIDENTEA Trafiko istripuen kontrako ahotsik entzutetsuenetarikoa bat da eskualdean, eta kontzientziario kanpaina ugari egiten du bide-indarkeria saihesteko, barru-barrutik

Ekaitz Herrera ISTRIPUAK

20 bat urte daramatza trafiko arduratsuz kontzientziatzeko lanetan, eta ez du bazterrera egiteko asmorik. Rosa Trinidad durangarra trafiko istripuen eta bide indarkeriaren kontrako mugimenduko aktibista ezaguna da, Stop Bide Indarkeria elkarteko presidentea. Enaitz semeari gertaturikoaren harira hasi zen militatzen, berak bizitako samina eta injustizia beste inork senti ez dezan lanean.

20 urtean, trafiko istripuek behera egin dutela diote datuek. Zelan baloratzen duzu bilakaera?

Joera egokia da, baina ezin dugu horregaz konformatu. 2024an 37 lagun hil ziren Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako errepideetan.

"IRUDITZEN ZAIT JENDEA EZ DELA KONTURATZEN DESPISTATZEAK SOR DITZAKEEN EGOEREZ"

37 hildako dira, eta behin betiko apurtuta geratutako 37 familia daude horien atzean. Gainera, ziur nago heriotza horietako ugari saihestu egin zitekeela.

Zuk kontzeptu bi bereizten dituzu trafiko istripuei dagokionez: istripuak eta bide indarkeria. Zein da aldea?

Istripu bat kontrolatzea ezinezkoa den zerbaitek, saihestu ezina den zerbaitek, eragindakoa izaten da. Kasu horien kontra borrokatzea gatxa da, eta ezinezkoa izango litzateke kontagailua zeroan mantentzea. Bai-

na, bide indarkeriari dagokionez, bai, eta lan egin behar dugu kontagailua zeroan mantentzeko. Izan ere, bide indarkeria jokabide ardurabakoek eta horien eraginez sortzen diren egoerek eta heriotzek osaturiko multzoa da. Eta horiek bai, horiek saihestu daitezkeen egoerak dira, eta, horrenbestez, bide indarkeria dira. Gidatzea ardura asko eskatzen duen jardura da. Hori barneratu eta kontzientzia hartu behar dugu.

Gidarion jokabide ardurabakoen artean, zeintzuk aipatuko zenituzke?

Gaur egun, telefono mugikorren erabilera goraka doa gidarien artean. Datuek horixe diote eta egoera horiek eguneroko kontua dira, kalean zein errepidean. Iruditzen zait jendea ez dela konturatzen une bakar batean despistatzeak zer egoera ekarri dezakeen. Telefonorik barik bizi izan gara urteetan, eta ez zen behar. Orain, ostera, zergaitik bai? Telefonoaren erabilera guztiz debekatuta egon beharko litzateke gidatzen gaudenean. Zer lortzen duzu whatsapp bat bidalita? Urgentziazko dei bat egin behar baduzu, bide bazterrean geratu zaitezke. Gelditu eta deitu. Baina, jakina, diodan hori gizartearen kontra doa, orain geratu barik bizi gara eta, bate-tik bestera, arrapaladan. Gainera, politikariek koldar jokatzen dute sarri, ez dute errotik aldatzeko erabakirik. Horiek guztiak arautzeak ez dakar-eta botorik. **Alkoholaren lege berria ate joka dago. Zer deritzozu lege proiektuari?**

Iaz esan zuten legea indarrean sartuko zutela, baina zertan ibili dira denbora horretan? Tarte horretan, jende asko hil da errepidean. Alkoholaren baimendutako mugaz ezbaidatzen dugunean ezin dugu "zero koma ez dakit zenbat" alkohol kantitateri buruz berba egin. Baimendutako alkohol maila zero izan behar da. Jatetxe batera bazkaltzera noala? Ura eskatuko dut, edo freskagarri bat, edo 0,0 graduko garagardoa. Bestela, alkohola edanda, beste batzuen bizia ere egongo zara arriskuan ipintzen, eta ez duzu eskubide-

"POLITIKARIEK KOLDAR JOKATZEN DUTE, EZ DITUZTELAKO LEGEAK ERROTIK ALDATZEN"

rik horretarako. Legea ezartzen bada, gutxienez, zigorra ezarriko da. Jendeak bere joerari eutsi diezaioke, baina zigorra ordaindu egin beharko du. Eragin dezakegun mina aintzat hartu barik, zigorrari beldurra diogulako ez ditugu arauak hausten, eta horixe da tristeena.

Puntukako gidabaimena ere halantxik jaio zen.

Bai, gogoan daukat jendeak legea kritikatu zuela, etekin ekonomiko lortzeko asmoa zegoelakoan. Baina ondo gidatzen badugu, behar den moduan eta arduraz, ez diegu beldurrik izango isunei. Zein da gure kezka, orduan? Isuna. Puntukako karnetak asko jaitziaz zuten istripu kopurua. Lan handia egin du.

Trafiko arduratsuen aldeko borrokan aktibista erreferenteetarikoa bat zaitugu.

Enaitz semea harrapatu eta hil zuenak kalte ordainak eskatu zizkigunean hasi nintzen honegaz guztiagaz lanean, duela ia 20 urte. Enaitz 2004an hil zen, eta semea autoz eta arau-hauste ugari eginda hil zuenak auzibideak hasi zituen gure kontra, 2006an. Enaitzi bota gura izan zioten gertaturikoaren errua. Horrenbestez, hori guzti hori hain injustua zela ikusita, epaitegiek babesten ez gintuztela ikusita, borroka egitea erabaki nuen, gauzak aldatzeko. Izan ere, aukera bi nituen: borrokatzea edo hondoratzea. Eta borroka egitea erabaki nuen, halakorik berriro ere beste inori ez gertatzeko.

Esapide ezagun batek honako hau dio: "Pertsona politikoa da". Zure kasua ere hori da?

Bai, baietz iruditzen zait, nire kasua ere horrelakoa dela. Izan ere, nire bizitza da. 17 urteko semea kendu zidaten, proiektuz eta ilusioz beteriko gazte bat. Bizia kendu zioten semeari, eta hori guzti hori, zergaitik? Ardurabako itzel bati nahieran gidatzeko gogoia eman ziolako. Ez da justua. Legelariak ezin dute ezikusiarrena egin halako egoeren aurrean. Ezin da hain gatxa izan erreforma juridikoak egitea. Maite duzun baten bat hil duenari zigorra ezartzea ez da mendeko kontua, bere ardurabakokeriagaitik hainbat lagun bizi bizitza hondatu duelako. Beraz, borrokatu egin behar dugu legeak aldatzeko. Jendea halako egoera lazarrietan hiltzea saihestu behar dugu.

Jon Irazabal omendu dute Martxoaren 31n

Gerediagak eta Kriskitinek Jon Irazabal omendu dute Martxoaren 31ko oroimen ekitaldian. Haren familiako kideek jaso zuten lore-sorta, Nerea Mujikaren eskutik. Irazabalek lan nekazina egin zuen Durangoko bonbardaketa ahanzturatik ateratzeko

Ekaitz Herrera DURANGO

Memoriaren haria ez da eten Durangaldean. Aurten ere, sentitua bezain hunkigarria izan da Martxoaren 31, Italiako abiazio faxistak, Espainiako kolpisten ekimenez, Durango eta Elorrio orain 88 urte bonbardatu zituen eguna. Durangoko Udalak oroimen ekitaldiak egin zituen goizean eta eguerdian, hilerrian lehenengo, Andra Mariko elizpean gero, eta Ezkurdin azkenik. Azken horretan, bonbardaketako biktimak oroitu eta gogoratu zituzten.

Arratsaldean, Gerediaga elkartearen eta Kriskitin dantza taldearen oroimen ekitaldia egin zuten Andra Mariko elizpean. Jon Irazabal omendu zuten bertan, Durangoko bonbardaketa ahanzturatik ateratzeko lan nekazina egin zuena. Jon Irazabalen neba-arrebek jaso zuten lore-sorta—Iñakiketa Itziarrek—, Nerea Mujika Gerediagako presidentearen eskutik. Ekitaldian zehar ez ziren falta izan musika



Nerea Mujika Jon Irazabalen neba-arrebekin, Itziar eta Iñaki.

(Xabier Amuriza, Ander Ertzilla, Izaro Ertzilla), Kriskitin dantza taldeko kideen saioa, bonbardaketako biktimen testigantzak, eta orain gutxi Kaliforniako Unibertsitate batek argitara ateratako irudi ikusgarriak, 1937ko

maiatz aldekoak, Durangon filmaturikoak, besteak beste. Ekitaldia amaituta, Irazabalen familiako kideek Andra Mariko arkupean ipini zuten lore-sorta, bonbardaketa oroitzuten duen plakaren ondoan.

Memoria eten ez dadin



Durangoko oroimen ekitaldi instituzionala. DURANGOKO UDALA

Durangoko Udalak ekitaldi instituzionala egin zuen astelehenean Ezkurdin. "Ez dugu ahaztu gura gertatutakoa, gogoratuta bakarrik bermatu dezakegulako berriro ez gertatzea", esan zuten Mireia Elkoroiribe alkateak.



Elorrio ere bonbardatu zutela gogoratu dute udalerrian. LAUMUNARRIETA

Durangokoa da eskualdeko bonbardaketarik sonatuenetarikoa, baina ezin da ahaztu faxistek Elorrio ere bonbardatu zutela martxoaren 31n. Laumunarrieta elkarteak lore-eskaintza egin zuen astelehenean.



Saibigainen gertaturikoa lurpetik argitara

Aranzadi eta Euskal Prospekzio Taldea ikerketa lanak egiten dabiltza Saibigainen. 1937ko apirilean gerra-zelai latza izan zen mendia, eta ordutik hona 88 urte joan diren arren, tarteka, han borrokatu zirenen aztarnak irteten dira argitara oraindino ere. Hori guzti hori azaltzeko asmoz, Gerediaga elkarteak bisita gidatua antolatatu zuen domekan. Bideoa QR kodean dago ikusgai.



Ikusi bideoa

Beheko solairuetako lokalak etxebizitza bihurtzeko aukera

Ordenantza berri hau eskualdeko herri bitan onartu dute azken asteotan, Zaldibarren eta Abadiñon

M.Z. ZALDIBAR/ABADIÑO

Zaldibarko Udalak indarrean jarri du etxebizitza blokeen azpiko lokalak bizitegi bihurtu ahal izateko ordenantza berria. Udalak jakinarazi duenez, herritarrei etxebizitzaren arazoa-

ri aurre egiten eta irtenbideak topatzen laguntzea da arau sortu berriaren helburu nagusia. Baita herriko lokal hutsen kasuan irtenbidea ematen laguntzea ere. Ordenantzak etxebizitzaren beheko solairuetako eta tarteko so-

lairuetako lokalei eragingo die, eta beren-beregi debekatuko du etxebizitzak sotoetan egitea. Era berean, debekatuta egongo da etxebizitzak eraikin nagusiaren eranskintzat hartzen diren zatietan atontzea. "Etxebizitzaren arazoa herritarren kezka iturri nagusienetarikoa dela kontuan hartuta, udalean argi dugu gure esku dauden tresna guztiak baliatu behar ditugula herritarren arazoari aurre egiten laguntzeko", azaldu du Eneritz Azpitar-te alkateak.



Zaldibarko argazkia.

Baita Abadiñon ere

Zaldibarrez gainera, azken asteotan Abadiñon ere onartu dute lokalak etxebizitza bihurtzeko ordenantza. Mikel Urrutia Abadiñoko alkatearen berbetan, ordenantza hau "mugarri historiko bat" da Abadiño-arentzat. "Jasangarritasunaren ikuspuntutik oso berri ona da, egun existitzen diren eremuei orain arte eman ez zaien funtzio bat ematen zaielako horrela", gaineratu du Mikel Urrutia alkateak.

Sagardo Eguna ospatuko dute Garain, apirilaren 5ean

Zapatuan ez da jan-edanik faltako Garain. DJ Bull musika jartzailea Sagardo Eguna girotzen egongo da



Aurreko edizioa.

E.H. GARAI

Trumoitte Kultur Elkarteko kideak Sagardo Eguna antolatzen dabilta apirilaren 5erako. 18:30ean ospakizuna egingo dute plazan, eta nahikoa jan-edan izango dute bertan. Aurten, sagardo mota bi dastatzeko aukera izango dute bertaratzen direnek: bata Mallabiko Leizarraga baserriko sagardoa izango da; bestea, Errenteriako

Egiluze sagardotegikoa. Muskarik ere ez da faltako ospakizunean. DJ Bull musika jartzaileak ipiniko ditu dantzarako gatza eta piperra. Eguraldiak laguntzen ez badu, ospakizuna frontoian egingo dute. ANBOTOK Sagardo Egunerako txartelak zozkatu ditu irakurle guztien artean, eta Itxaso Egidazu eta Oskar Mendiolagarai izan dira onuradunak.


Otxandioko Arkotxe elkarteak 20 urte egin dituela ospatuko du

A.B. OTXANDIO

Aurten 20 urte beteko dira Otxandioko Mekoleta auzoan dagoen Arkotxe kultur elkartearen sortu zenetik, eta, urteurrena ospatzeko, egitarau berezia prestatu dute zapatarako. Elkarrekin sagardotegi bihurtuko dute egun batez. Hartara, bertaratuko diren bazkideei sagardotegiko mendua eskainiko

diere bazkaltzeko, eta kupela txotx egiteko. Guztira, 50 lagun batuko dira, elkartekoek azaldu dutenez.

Arratsalderako bertso saioa eta erromeria antolatu dituzte Mekoleta auzoan. Arkotxe elkarteak kideek gonbidatuta, Igor Elortza eta Eneko Abasolo 'Abarkas' bertsolariek saioa egingo dute. Ondoren, trikiti doinuak nagusituko dira. Izan ere, Xabi Aburruzaga trikitalari bizkaitarragaz erromeria izango dute, eguna borobiltzeko.



"LEINN graduak ikasitakoa desikastea eskatzen du, gauzak beste modu batera egiten ikasteko"

JARE LANDA SOLOZABAL MALLABIA | 19 URTE |

Gradua: LEINN - LIDERGO EKINTZAILEA ETA BERRIKUNTZA GRADUKO 1. MAILA

Zergatik aukeratu zenuen LEINN (Lidergo Ekintzaile eta Berrikuntza) gradua ikastea?

Graduaren berri izan nuen lehen momentutik asko gustatu zitzaidan, hainbat arrazoirengatik. Adibidez, ohiko unibertsitateetako klase magistralen ordeztaldeen artean eta proiektu errealean oinarritutako ikaskuntza eskaintzen du LEINNek. Baita gradua praktikoa delako ere, eta esperientzian oinarritua. Benetako proiektuak garatzeko aukera ematen du, eta hori oso motibagarria izan daitekeelako. **Nola ari da izaten LEINNen bizitako esperientzia?**

Oso esperientzia polita eta bizia ari da izaten, ez bakarrik akademikoki, baita pertsonalki ere; izan ere, norbere burua hobeto ezagutzen ari gara taldekideei esker. Bizitza errealerako prestatzen ari gara eta egunero zerbait berria ikusi eta ikasten dugu.

Zer da gehien gustatzen zaizuna Mondragon Unibertsitatetik?



Jare Landa, erdian.

Erabiltzen dugun ikasketa eredu oso desberdina da beste unibertsitate batzuekin alderatuta. Gainera, kooperatiba bezala duen ibilbidea eredu garria da.

Lehen egunetik enpresa bat sortu duzue LEINN graduaren. Nola egiten da hori?

Lehen egunetik ekinean jartzen gara. "Learning by doing" da gure lema. Ikasi dugu gauzak ez direla bakarrik etortzen, beraien bila joan behar garela.

Nolakoa da taldean lan egitea? Hasieran oso zaila da, baina pixkanaka-pixkanaka hobetzen

goaz talde bezala funtzionatzen. LEINNek eskatzen duen gauzetako bat ikasitakoa desikastea da, gauzak beste modu batera egiten ikasteko.

Zein proiektutan ari zarete lanean LEINNen barne?

Arlo desberdinetako proiektuak garatzen ari gara. Hala nola moda, birziklapena, proiektu sozial eta teknologikoak.

Zer-nolakoa izan da atzerriko esperientzia? Non izan zarete?

Gure lehen Learning Journey-a ari gara bizitzen orain. Alemanian gaude, Berlinen. Esperientzia zaila eta aldi berean polita ari da izaten. Etxetik urrun egotea beti ez da errazena, baina egunero iristen zaizkigun aukerak aprobetxatzen gabilta.

Zer asmo dituzu etorkizunari begira?

Orain buru-belarri ari garen proiektu horiekin aurrera jarraitzea gustatuko litzaiguke, eta, nola ez, proiektu berri eta konplexuagoak sortzen joatea da gure asmoa.

Europako irizpideetara egokitu dute zabor tasa

Zornotzako osoko bilkurak joan zen barikuan aho batez onartu zuen hondakinaren tasa %26 igotzea; "Zaborrik gehien sortzen dutenak gehiago ordaintzea" da proposamenaren helburua; uztailen sartuko da indarrean tasa berria

A. M. ZORNOTZA

Aurtengo bigarren seihilekotik aurrera, hondakinak batzeari dagokion tasa berria ordainduko dute zornotzarrek. Martxoko osoko bilkuran, tasen egunera-keta Europako irizpideei egokitzea onartu zuten, aho batez; hain zuzen ere, 2008/98/EE Zuzentarauari lotuko zaio orain, hondakin kopurua murriztu eta birziklapena sustatzeko asmoagaz. "Tasa ahalik eta bidezkoena izan dadin lan egin dugu. Leioan, adibidez, % 50eko igoe-ra ezarri dute, eta 132 euro ordaintzen dute; Galdakaon % 69,9 igo da, eta urtean 113,36 euro ordaintzen dute, etxebizitza guztiei modu berean tarifa laua aplikatuta. Zornotzan, 'gehien sortzen duenak gehiago ordaintzen du' printzipioari jarraitzen diogu, eta tasa modu objektiboan eta ekitatiboan diseinatu dugu, etxebizitza baitoan erroldaturiko pertsona kopurura egokitu dadin", azal-



Zornotzako Urbano Larruzea kalea.

du du Ainhoa Salterain Zornotzako alkateak. Zornotzaren kasuan, % 26 igoko da tasa; batez beste, zornotzarrek 98,89 euroko ordainagiria ordaindu beharko dute urtean. Salterainen berbetan, udalak 1.594.174,77 euro batuko ditu tasa berriagaz, eta, horri

eskerrak, hondakinak biltzeko zerbitzua ez da defizitarioa izango. Ordenantza berria lantzeko, udalak Diego Francisco Marin-Barnuevo Fabo eta Cesar Martinez Sanchez UAMeko Toki Zuzenbideko Institutuko katedradunen aholkularitza izan du.



Gurasoen Hamaikakoa.

Euskaraldia bultzatuko duten hamaikakoak aurkeztu dituzte

Euskaraldian parte hartzeko izen ematea zabalik dagoela gogoratu dute; maiatzaren 15etik 25era izango da

A. M. ZORNOTZA

Zornotzako Euskaraldiak zazpi hamaikako aurkeztu ditu ariketa sozial masiboari ikusgarritasun handiagoa emateko asmoz. "Alor desberdinetan parte hartzen duten zornotzarrek osatzen dituzte hamaikako hauek", argitu dute. Kirol arloko Hamaikakoa, Kultur Hamaikakoa, Gazteen Hamaikakoa, Euskaldun berrien Hamaikakoa, Nagusien Hamaikakoa, Gurasoen Hamaikakoa eta Hitanoaren Hamaikakoa aurkeztu zituzten Zelaieta zentro parean egindako ekitaldian. Euskaraldiaren laugarren edizioa

da hau eta maiatzaren 15etik 25era bitartean egingo da. Dagoeneko zabalik dago izen ematea Ahobizi eta Belarriprest legez parte hartzeko.

Bestalde, bertako establezimenduek euskaragaz eta Euskaraldiagaz duten konpromisoa erakusteko, 50 entitatek izena eman dute. "Euren inplikazioa funtsezkoa da, herritarrekin eguneroko eta gertuko hartu-emana dutelako eta euskaraz berba egitea geroago eta naturalagoa den ingurune bat bultzatzen dutelako", gogoratu dute Euskaraldiaren Zornotzako batzordekoek.

Emakumeak ahalduntzeko antzerki tailerra, Berrizen

Nazaret Froufek emango du; izen ematea doakoa izango da eta apirilaren 11ra bitartean egin daiteke

A. M. BERRIZ

Berrizko Udaleko Berdintasun arloak 18 urtetik gorako emakumei zuzenduriko ahalduntze antzerki tailerra antolatu du. Nazaret Froufe antzezle, sortzaile eta antzerki pedagogoak emango du ikastaroa. "Gure gorputza, gogo eta espiritua landuko ditugu. Izaki sortzaile legez berezi egiten gaituzten askatasuna eta edertasuna bilatuko ditugu. Bide batez, gure izaeraren autokontzientzia irabaziko dugu eta autoestimua landuko dugu", azaldu du Froufek.

Zortzi saiok osatuko dute Berrizko ikastaroa. Lehenengoa apirilaren 28an izango da, eta hurrengoak maiatzaren 5ean, 12an, 19an, 26an eta ekainaren 2an, 9an, eta 16an izango dira, Kultur Etxean, 18:30etik 20:00etara bitartean.

Izen ematea doakoa da eta apirilaren 11ra arte egongo da zabalik. Izena emateko, berdintasuna@berriz.eus helbidera idatzi daiteke, edo 94 682 45 25 telefono zenbakira deitu edo 603 837 471 zenbakira WhatsAppera idatzi.

Moreno San Roman elorriarraren erakusketa, Iturri

Manuel Moreno San Roman margolari elorriarraren lanak ikusgai daude Iturri kultur etxean



Morenoren senideak, Julene Lazkano eta BAEMeko Miriam Alzuri. J. URIZARBARRENA.

A. M. ELORRIO

Manuel Moreno San Roman (1893-1969) artista elorriarraren ehun bat lan ikusgai daude Elorrioko Iturri kultur etxean. Erakusketak martitzenean zabaldu zituen ateak, eta apirilaren eta maiatzean zehar egongo da ikusgai. Moreno Barakaldon (Bizkaia) jaio arren, oso gazterik ezkondu zen Elorriora, eta bertan zituen estudioa eta tailerra; bertan, hainbat margolan eta eskultura sortu zuen. Urte luzez gordeta egon eta gero, bere lanak ikusgai egongo dira, Bilboko Arte Ederren Museoaren, familiaren eta udalaren elkarlanari eskerrak.

Horrez gainera, liburutegian *Liburuaren arbola* erakusketa ipini dute, Euskararen Etxearen eskutik; apirilaren 25era bitartean egongo da ikusgai.

GREMIOEN GIDA

 **Zurgintza**

leike

Eraberritzeak
Interiorismoa
Aroztegia

NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leike.eus

Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf: 94 681 72 29

 **Zurgintza**

ATERPE ARBOTZAR

EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar
635 74 84 65

www.carpinteriaaterpe.com



Dekorazioa

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko
altzairuen lakadura eta
guztietako zaharberitzeak
egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A - BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com



Elektrizitatea



ELECTRICIDAD JON

622 684 284

electricidadjon@outlook.es



Iturgintza

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com




Iturgintza



**UNAI
GARAY**
ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

INSTALATZAILE BAIMENDUA

659 673 790
unaigaray@yahoo.es





Eibar Kirol Hiriko argazkia.

Kirol Hiria udarako prest egotea aurreikusten dute

Mallabiko Udalaren eta Eibar Kirol Elkartearen akordioaren bitartez egin duten instalazioak bost futbol zelai izango ditu guztira; euretatik bi belar naturalekoak izango dira, eta gainerakoak belar artifizialekoak. Lehen taldea bertan entrenatuko da



Finalak Apatako San Pedro jaietan jokatuko dira.

Pilota goxoagaz txapelketa herrikoia antolatu dute Atxondon

Herritarrei zuzenduta dago eta binaka jokatu da, maila bitan banatuta. Gaur da izena emateko azken eguna

J.D. ATXONDO

Atxondon pilota goxoko txapelketaren lehen aldia antolatu dute. Txapelketa herrikoia da eta, printzipioz, atxondarrak direnek eta herriagaz hartu-ema dutenek parte hartu dezakete. Binaka jokatu da, maila bitan banatuta. Partiduak, ahal

dela, bariku edo domeka arratsaldeetan jokatu dira. Finalerdiak Axpeko San Juan jaietan jokatu dira, eta finalak Apatako San Pedro jaietan izango dira. Gaur da azken eguna izena emateko (20 euro bikoteko), eta telefono honetan egin daiteke hori: 689 75 40 30 (Josu).

Mañariko jubilatuek Peru Harri museoa bisitatuko dute

J.D. MAÑARIA

Mañariko Ursula Donea nagusien elkarteak egunpasa bat antolatu dute apirilaren 9rako, datorren asteko eguaztenerako. Leitzako Peru Harri museoa bisitatuko dute, 09:30ean Mañaritik irtenda. Ekimenak arrakasta izan du eta autobus bete lagun joango da; 57 nagusi, guztira. Euretari gehienak, 46, mañariarrak dira eta gainerakoak izurtzarrak. Museoa Iñaki Perurena harrijasotzaile eta aktore ezagunak sorturikoa da, bere baserri inguruan. Mota askotako eskulturen artean, bereziki deigarria da 'harrijasotzaile erraldoia' lez ezagutzen dena; zortzi metro garai da eta 40 tona ditu.

Bazkaria Leitzan

Museoa bisitatu eta gero, Leitzan bertan bazkalduko dute, Lopenea hostalean. Ondoren, herria bera apur bat ezagutzeko astia izango dute, arratsaldean etxera bueltatu aurretik.

Maialen Zuazubiskar MALLABIA

2018ko urrian, SD Eibarreko akziodunek erabaki zuten klubak kirol instalazio propioak behar zituela. Kirol Hiri hori Mallabian egin gura zutela azaldu zuten. Euren nahia Mallabiko Udalari azaldu zioten, eta prozesua martxan ipini zuten. Kirol Hiria egiteko prozesua luzea izan da, sasoi hartan Plan Orokorra aldatzen zebiltzalako Mallabian. Baina behin Plan Orokorra aldatuta, 2023an bide eman zioten Eibarko Kirol Hirriaren proiektuari, eta dagoneko lanak azken fasean sartzeko bidean daude.

2023 amaieran, Mallabiko Udalaren eta Eibar Kirol Elkartearen akordioan jasotako bidegorria egin zuten. Bidegorri honi eskerrak, Mallabiko herrigunea eta Areitio auzoa lotuta dago oinezkoentzat. Gainera, Areitio gainean, N-634 errepidean, biribilgune bat egiteari ere ekin zioten.

Mallabiko Udalak Kirol Hiria urbanitzatzeko obra-lizentzia ere eman zuen, eta bost futbol zelai jasotzen dituen proiektua amaierara heldu da ia.

Bost futbol zelai gunea

Mallabiko Udaleko iturriek ANBOTOri jakinarazi diotenez, Areitio gainean dauden instalazioak uda honetarako amaituta egotea aurreikusten dute. Datorren denboraldirako prest izango dituzte. Kirol Hirian, SD Eibar osatzen duten talde guztiek izango dute lekua. Alde batetik, lehenengo taldea bertan entrenatuko da. Bestetik, harrobiko taldeek entrenamenduak egiteko eta partiduak jokatzeko erabiliko dute.

Areitio gunea bost futbol zelai izango ditu guztira. Horietatik bi belar naturalekoak izango dira, eta gainerako hirurak belar artifizialekoak. Horrez gainera, harmaila handi bat, eraikin zentral bat eta beste instalazio batzuk ere egongo dira bertan.

LEHENENGO TALDEA BERTAN ENTRENATUKO DA, ETA HARROBIKOEK BERTAN JOKATUKO DITUZTE PARTIDUAK

Ekainean emitutuko dute Izurtzako 'Herri Txiki, Infemu Handi' saioa

Miren Nogales eta Mikel Pagadi aurkezle zirela, atzo grabatu zuten aretoko saioa, Izurtzako herrigunean

J.D. IZURTZA

ETB1 telebista kanaleko *Herri txiki, infemu handi* saioaren aretoko zatia grabatu zuten, atzo, Izurtzako herrigunean. Aurreko astean elkarrizketak grabatu zituzten hainbat izurtzarregaz, eta haiekin bizi izandako espe-

rirentziak izan ziren programaren ardatza. Miren Nogalesen eta Mikel Pagadiren bakarriketek eta Sebastian Lizasoren bertsoek osatu zuten saioa. Izurtzako saioa ekainean emitutuko dute, ETB 1 kanalean, programakoek eurek aurreratutakoz.



Herritarrekin egindako grabazioa. ORIO PRODUKZIOAK

OSASUN GIDA

 **Podologia**
PSE: 214/06



Adinara Urreta Jainaga
OINEN ZAINZA ETA TRATAMENDUA
IBILKERAREN AZTERKETA BIOMEKANIKOA
NEURRIIRA EGINDAKO PLANTILAK
Herriko Gudarien kalea, 10 BEHEA
DURANGO, Tel./Faxa: 946 215 404

 **Odontologia**
PSE: 26/22


HORTZ-KLINIKA
Konfiantzazko hortz klinika Durangoan
**DIAGNOSTIKO ZEHATZA EGITEKO ETA,
HORRELA, TRATAMENDU ERAGINKORRA
ETA SEGURUA ESKAINTZEKO BEHAR
DEN TEKNOLOGIA DAUKAGU.**
Ordulegia:
Astelohenetik ostiralera: 10:00 – 14:00 | 16:00 – 20:00
Larunbata: hitzordua hartuta
944 14 80 36 | 626 18 30 30
Askatasun etorbidea 15, 48200 Durango, Bizkaia
www.clinicadentalviteri.com

 **Odontologia**
PSE: 145/13


clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarría
ODONTOLOGIA OROKORRA -
INPLANTOLOGIA - KIRURGIA -
ORTODONTZIA OHIKOA (DAMON) ETA
IKUSEZINA - ODONTOPIEDIATRIA - PADI -
HORTZETAKO ESTETIKA - HORTZETAKO
ESKANERRA (ITERO ETA CBCT)
{ Muruetatorre, 2C blokea, behea -
48200 Durango }
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454
uecdental@gmail.com

 **Fisioterapia**
PSE: 119/13


ZAINDUZ
Fisioterapia • Osteopatia
Pilateseko klaseak eskaintzen ditugu.
Solo pertsonalizatuak dira,
talde txikietan.
Trañabarren 13, 4. blokea
behea eskuma
MATIENA-ABADIÑO
944 657 132 - 686 906 374

 **Fisioterapia**
PSE: 57/16


pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia
Muruetatorre, 2D
DURANGO
pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963

 **Proktologia**
PSE: 16/22


**Uzki eta zoru-pelbikoko
patologien tratamendua**
Mikeldi Kalea, 13, 48200
Durango, Bizkaia
(MAM Zentroa)
674 322 360 / 747 474 699
info@proktos.clinic

 **Naturopatia eta Homeopatia**

Aurora Julia
**HOMEOPATIA • NATUROPATIA
OSASUN INTEGRALA**
Umeak - Helduak - Nagusiak
Ordua hartzeko:
946 204 218
Txanporta Plaza, behea - Abadiño
www.aurorahomeopata.eus


 **Psikologia**


Hezkuntza zailtasunak
Hezkuntza zailtasunen
diagnostikoa eta esku-hartzea,
diskalkulian adituak.
 **613 038 933**
Andra Mari, 16 1D Durango

 **Psikologia**


Psikologia
Helduak-nerabeak-haurrak
• Zure buruan konfiantza sendotzeko
• Estresa kudeatzeko
• Zure harremanak hobetzeko
ONLINE ETA AURREZ-AURRE
 **613 05 38 62**
Andra Mari, 16 1D Durango

 **Optometria**
PSE: 162/13


keinu
OPTOMETRIA ZENTROA
• JOKABIDE OPTOMETRIA • HAURREN IKUSMENA
• IKUSMENAREN ENTRENAMENDUA • JATORRIZKO
ERREFLEKUIAK • FOTOTERAPIA OPTOMETRIKOA
• SENA ENTZUMENAREN ESTIMULAZIOA • KIROL
IKUSMENA • GARUNEKO LESIOAK • UKIPEN LENTEAK
• ORTO-K ETA MIOPIAREN KONTROLA
Arkaz 3 • 48240 Berriz • Tel.: 946 225 099
www.keinuoptometriazentroa.com

anboto
kide

Anbotokideen txokoa APIRILEKO ZOZKETAK




Herri Urrats-eko
opari sorta.



Basa: Basa take
away jatetxeko
eguneko menu bat.



Errigoraren
eskutik Euskal
Herriko produktuen
otzara.



Xiberu tabernan
bi gosari bikoitz.
Zornotza.

Okm:
batzen gaituen
distantzia

*Zozketa hauetan parte hartzeko
eman izena gure webgunean.

Egin zaituzte Anbotokide eta
parte hartu gure zozketetan!



"Autobusa gure musturren aurretik pasatzen da, baina ez da geratzen"

MAIALEN BIDEGUREN ALBIZURI

Bideguren abadiñarrak martxan ipinitako ekimenaren bitartez, 500 sinadura batu dituzte Elorrio-Bilbo autobus linea astean zehar Muntzaratzen ere gelditzea eskatzeko

Maialen Zuazubiskar ABADIÑO

Maialen Bideguren Albizurizag Muntzaratzen geratu gara, autobus geltokian. A3929 lineako autobusa hartu gura du, Elorriotik Bilborakoa, baina aurretik pasatu zaio, geratu barik. Horregaitik, astean zehar linea horretako autobusak bertan geldialdirik egiten ez duelako, sinadura bilketa bat hasi zuen martxo hasieran.

Sinadura bilketa bat martxan ipini duzu. Zergaitik?

Autobusa erabiltzen dut 14-15 urte nituenetik, eta sarritan berba egin dut auzoko jendeagaz Elorrio-Bilbo autobus linearen inguruan. A3929 lineako autobusak astean zehar ez du geldialdirik egiten Muntzaratzen, eta auzora datorrenak eta hemendik norabaitera joan behar duenak Zelaietako autobus geltokiraino joan behar du, nahiz eta autobusa Muntzarazetik pasatu. Muntzarazekoak gara abadiñar bakarrak Bilborako autobusa ez daukagunak. Zelaietakoek badaukate, baita Matienakoek ere. Aurreko batean, nazkatuta, udaletxera joatea erabaki nuen, eta, eurek gomendatuta, sinadurak biltzen hasi nintzen.



Maialen Bideguren Albizuri.

500 sinadura batu dituzu. Orain zer?

Instantzia bat bete dut eta sinadurekin batera, Abadiño Udaletxera, Bizkaiko Garraio Patzuergora eta Bizkaibusera bidali dut. Udaletxean esan didate eurak ere badabilzala eskari honegaz, egin dutela eskaria Aldundian. Beraz, orain ikusi egin beharko da zeozer lortzen dugun ala ez.

Eta lortu ezean?

Sinadurekin ezer lortzen ez badugu, mobilizazioak antolatzeko prest nago. Autobusa gure musturren aurretik pasatzen da, baina ez da geratzen. Gainera, ez da horren gatxa geldialdi hori egitea; eurentzat ez du horrenbeste suposatzen, baina guretzat bai. Ikusi dugu arazoa ez dela gutxi batzuen, herritar askoren eskaria dela.

URAK ordainduko ditu Matienan uholdeak saihesteko lanak



Asier López URako zuzendaria eta Mikel Urrutia Abadiño alkatea.

M.Z. ABADIÑO

Abadiño Udalak eta URA agentziak hitzarmena sinatu dute Traña-Matienan uholdeak saihesteko egingo dituzten lanen lehenengo fasea hasteko. Lehenengo fase hori Sarria ibaian zentratuko da eta lanen kostua URak hartuko du bere osotasunean, 2.064.927 euro. Lanengaitik desjabetu beharko diren lurzatiaren kostua udalaren gain geratuko da.

Zaldien Raid txapelketa jokatu da Iurretan

EAEko eta Kantabriako 20-30 zaldi eta zaldizko federatuk parte hartuko dute, Iurretan, aurten lehenengoz antolatu duten lasterketan. Euskal Hipika Federazioaren sailkapen proben egutegian finkatzea dute helburu bultzatzaileek

Aitziber Basauri IURRETA

Zapatuan, Aerialde Zaldien Raid lasterketa jokatu da Iurretako San Marko auzoan. EAEko eta Kantabriako 20-30 zaldi eta zaldizko federatuk parte hartuko dute, Ariane Isasi zaldizko iurretarrak jakinarazi duenez. Lehenengoz egingo da lasterketa, eta antolatzaileek Euskal Hipika Federazioaren sailkapen proben egutegian finkatzea dute helburu.

Lau kategoriatan lehiatuko dira (20 km, 40km, 60km eta 80km), San Marko auzoan prestatuturiko zirkuituan. 80 kilometroko proban arituko diren zaldi eta zaldizkoak irtengo dira lehenengo.



San Marko auzoan prestatuturiko zirkuituan egingo dituzte probak. MICKA.PHOTOGRAPHIE

Hiru fasetan arituko dira, 09:00etan irtenda. Geroago hasiko dira 60, 40 eta 20 kilometroko lasterketak, hurrenkera horretan. "Bakoitzak bere helburuak ditu, maratoietan legez. Batzuek abadura libreko proba nagusiagotatik lehiatu gura dute, eta beste batzuek nahikoa dute sailkapen probetan arituta", dio iurretarrak. Ibilbide luzeko lasterketetara (100 km, 120 km edo 160 km) heldu aurretik, zaldi eta zaldizkoak sailkatzeko derrigorrezko proben parte dira zapatukoak.

Raid-a ezagutaraztea helburu

Endurance edo Raid diziplina ezagutaraztea ere badute helburu antolatzaileek. "Europako txapelkunak gara diziplina honetan, eta munduan mailarik gorenean gaude. Baina lorpen horiek ez dute oihartzunik. Euskal Herriko zaldizkoak oso maila handian lehiatzen diren arren, ez dute ikusgaitasunik. Jauzi-lasterketak baino ez dira ezagutzen, beste hainbat diziplina egon arren", dio Isasik. Hainbat enpresak lagundu du Iurretako lasterketak antolatzeko, eta Isasik laguntza hori eskertu du.

Udalekuetan izena emateko epea zabaldu dute Iurretan

Aitziber Basauri IURRETA

Iurretako Udalak antolatuta, udako tailerrak egingo dituzte ekainaren 30etik uztailaren 18ra. *Artista mundialak* izenburupean, HHko 3. mailatik DBHko 2. mailara arteko neska-mutulei zuzenduriko hainbat ekintza garatuko dute. Ekintzetarako, adinaren arabera taldeak egingo dituzte. Izena emateko epea apirilaren 11ra arte dago zabalik, HAZen edo Ibarretxe kultur etxean. "Ume eta gazteak benetako artista bihurtzera, askatasunez adieraztera eta sormenak mugarik ez duen espazio batez gozatzera" gonbidatu gura dituzte.

Aisialdirako "alternatiba" bat eskaintzea da udako tailerren helburua, "aberasgarriak" diren ekintzak antolatuta, "modu hezigarrian". Udalekuak herrigunean izango dira, eskola publikoaren lokaletan, 09:00etatik 14:30era bitartean. "Sormena pizteko eta adierazpen artistikoa sustatzeko diseinaturiko jarduerak dira", esan dute arduradunek.

Lantegi Batuak fundazioak pabilioi berria eraiki du Iurretan

Lantegi Batuak Bizkaian duen 21. zentroak 5.000 metro koadro ditu; 1,2 milioi euroko inbertsioa eskatu du

A. Basauri IURRETA

Lantegi Batuak fundazioak 5.000 metro koadroko pabilioi berria zabaldu du Iurretan. Bizkaian duen 21. zentroa da eta 1,2 milioi euroko inbertsioa egin du. Metal eraldaketarako eta logistika-

rako bideratuko den lantokia da eta 30 pertsonak lan egiten dute bertan; euretariko 25ek dute desgaitasuna.

Bizkaiko Ekonomia diputatu Ainara Basurko bertan izan zen martitzenean, eta Lantegi Ba-

tuakek industriaren sustapenean duen papera nabarmendu zuen: "Funtsezkoak zarete Durangaldeko eta Bizkaiko industriaren bultzatzaile legez. Egiten duzuen lana oso garrantzitsua da beste enpresa batzuen zerbitzuetarako eta haien garapenerako. Gainera, pertsonak erdigunean ipinita". Iurretako alkate Oskar Kokak herriko industria sarea zabaltzeak duen garrantzia nabarmendu du. Eta gaineratu du jarraitu egingo dutela herriko industria sarea babesten.



Ekonomia Sustapeneko diputatua, Koka alkatea eta Lantegi Batuakeko presidentea.

BULEGORAKO ZIGILUAK FOTOLITOAK

Betikoak flexografía

946 202 241

Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA

GAER DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

Baionako manifestaziora joateko deialdia Durangon

Durangoko Euskal Herrian Euskarazek autobusa ipiniko du zapatuan Lapurdiko hiriburura joateko

Ekaitz Herrera DURANGO

Zapatuan, Euskal Herrian Euskarazek manifestazioa egingo du Baionan, "euskararentzat eta euskaldunontzat justizia aldarrikatzeko", eta epaiketaren zain dauden Ipar Euskal Herriko kide


biri elkartzuna adierazteko. Mobilizazioa hiriko epaitegitik irtengo da, 11:30ean. Durangoko EHEk autobusa ipiniko du bertara joateko. Autobusa Madalenatik irtengo da, 9:15ean. Izena eman gura dutenek Durangoko

Euskal Herrian Euskarazegaz hartu-emanen ipini beharko dute, durangokoehe@gmail.com helbidera idatzita edo Intxaurre tabernara bertaratu eta han izena emanda.

Iazko abenduaren 3an, Euskal Herrian Euskarazeko kide bi Baionako Justizia Jauregiko teitlatura igo eta *Justizia Euskararentzat* margotu zuten bertan. Orain, epaiketaren zain daude; apirilaren 11n epaituko dituzte. Hori dela eta, zapatuan Baionako kaleak betetzera deitu du EHEk.



EHEren agerraldi bat Baionan. EHE



POLITIKAN

PAULE SANCHEZ
EAJ

Sasi guztien ginetik eta laino guztien azpitik

EAJn gizartearekiko dugun konpromisoa ukazina da eta emandako hitzari zintzoki eusten diogu. Durangarron ongizatea lehenetsiz, joko politikoetan ez jaustea da gure helburua, nahiz eta batzuetan ia ezinezkoa izan.

Udalean egiten den lana sarri ikusezina da eta askotan ez da erraz ulertzen, baina zuzenean eragiten die hemen bizi, lan, ikasi edo bisitatzen datozen guztiei. Hori horrela, asmo txarreko zaratek eta ezegonkortu nahi gaituzten estrategiek ez gaituzte kikilduko. Arduraz eta zuhurtziaz jokatzeko jarraituko dugu, egungo eta etorkizuneko beharrei erantzunik onena emateko, temati, lana eginez.

Batzuetan ohiko konponbideak izango dira horiek; besteetan, planteatzen zaizkigun erroka berriei saiakera berriztatzaileekin ekingo diegu, nahiz eta gure ahaleginaren fruituak etorkizunean ikusiko direla jakitun izan.

EAJn gure izateko eran daukagu errotuta konpromisoa, irmotasuna, talde-lana eta elkartasuna. Abertzaleak eta humanistak gara, ekintzaile eta feministak, beti giza eskubide ooren defentsan.

Amaitzeko, eta argi gera bedi, Durangoko Eusko Alderdi Jeltzalekook sasi guztien ginetik eta laino guztien azpitik, zintzotasunez eta leialtasunez, herringintzatik aberrigintzan ibilitakoak gara, gabiltza eta horretan jarraituko dugu.

DURANGALDEA ASTEON

Bertso poteoa domeka eguerdian Zelaietan

ABADIÑO Isiotu Kultur Elkarteak eta Abadiñoeko Euskaraldiak antolatuta, apirilaren 6an bertso poteoa egongo dute Zelaietan. Larrano tabernan hasiko da, 12:30ean. Onintza Enbeitia, Eneko Abasolo 'Abarkas' eta Bittor Altube arituko dira bertsoetan. Txanbolin Txistu Taldeak goiza girotuko du.



Bizkaian Emakumeak Dantzari, zapatuan, Durangon

DURANGO Zapatuan, apirilak 5, Bizkaian Emakumeak Dantzari ekitaldia egingo dute. 18:00etan Durangoko kaleetatik kalejiran ibiliko dira, eta 18:30ean ekitaldiari hasiera emango diote, Andra Mariko elizpean. Ekitaldian, Otxandioko Urduri eta Durangoko Tronperri, Txoritxu Alai eta Kriskitin dantza taldeek parte hartuko dute; 60 bat emakume arituko dira guztira.



Axmokilgo tontorren buzoia ipini dute

IURRETA Iurretako Kofradiek, Zaldai Mendi taldeak eta Maiztegiko guraso elkarteak mendi irteera egin dute asteburuan Axmokilera, Iurretako bigarren punturik altuenera (Gallanda da lehenengoa). Helburu jakin bat ipini zuten orain egun batzuk: tontorrera joan eta mendiko buzoia ipintzea han. Bada, esan eta egin. Axmokilek buzoia estreinatu du asteburuan.

GUTUNAK

Idatzi zure gutuna eta bidali!

Zure gutuna helarazteko helbidea: **Bixente Kapanaga 9 - Iurreta**
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO:
• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarreak barne).

anboto

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrindia.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazioa: Itziar Belar Zubizarreta, Miren Abasolo Txabarri eta Xabier Lazkano Baseta.
Publizitatea: Goretti Alonso Armendia.
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala eta Irati Otadui Maiztegi.
Maketazioa: Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



LAGUNTZAILEAK

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

2024



errenta

aitorpena

Errenta aitorperna euskaraz egiteko gonbita

UEMAK, Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak, errenta aitorpena euskaraz egiteko kanpaina hasi du udalekin eta hainbat erakunde publikogaz batera. Eskualdeko datuek erakusten dute oraindino kontzientziazio lan handia dagoela egiteko



Errenta aitorpena Internetez egiten duenak euskarazko bertsioa jaitxi dezake.

J.D. DURANGALDEA

Apirilaz batera, 2024ko ekitaldiko errenta aitorpenaren epealdia hasiko da Hego Euskal Herrian, eta, horregaz batera, UEMAK, bertako kide diren udalekin eta Foru Ogasunekin elkarlanean, berau euskaraz

egiteko kanpaina hasi du aurten ere. Bizkaian apirilaren 10ean hasiko da errenta aitortzeko epea.

Kanpaina honen barruan, UEMAK errenta aitorpena euskaraz egiteko argibideak eman ditu. Esaterako, hitzordua hartzerakoan,

ogasunagaz hartu-eman euskaraz izan gura dela adieraztea nahikoa da hartu-eman euskaraz izan dadin, bai aurrez aurre eta baita telefonoz zein Internet bidez ere. Ogasunak sinatzeko ematen duen orria ere euskaraz jaso daitekeela zehaztu dute.

Errenta aitorpena Interneten bitartez egiten duenak euskarazko bertsioa jaitxi dezake, eta hobetsitako hizkuntza atalean euskara hautatu. Aholkularitza bat aukeratzen duenak berariaz adierazi beharko du aitorpena euskaraz egin gura duela. Beste moduren batean egiten duenak —finantza erakunde batean, esaterako— euskaraz egiteko eskatu dezake.

Herrietako datuak

"Errenta euskaraz egiten duen herritarren kopurua urterik urte gorantz doan arren, errealtate soziolinguistikoak erakusten dituen datuetatik urrun dago oraindino", diote UEMAKoek, eta datuek ere horixe erakusten dute. Iaz, Bizkaian, Mendexa (% 27), Amoroto (% 25), Aulestia (% 22), Ispaster (% 20) eta Berriatua (% 17) izan ziren euskaraz errenta aitorpen gehien egin zituzten herriak. Gipuzkoan gehieneko ehunekoak handiagoak dira: Zerain (% 72), Orexa (% 67), Ataun eta Baliarrain (% 62) eta Amezketak (% 60), UEMAKo datuen arabera.

Durangaldeari dagokionez, ehunekorik handiena Otxandiokoa da, % 10,6gaz. Garai dator segidan, % 10,3gaz. Portzentajeetan Atxondo da hirugarren herria % 8,4gaz. Bi herririk handienek, Durangok eta Zornotzak, ehuneko bera dute: % 4,8.

ESKUALDEKO DATUAK, EHUNEKOTAN

Durangaldean, batez beste, Otxandion eta Garain egiten da errenta aitorpena euskaraz gehien.

- Abadiño: % 5,7
- Zornotza: % 4,8
- Atxondo: % 8,4
- Berriz: % 5,4
- Durango: % 4,8
- Elorrio: % 5,5
- Garai: % 10,3
- Iurreta: % 5,4
- Izurtza: % 5,5
- Mallabia: % 6,9
- Mañaria: % 6,3
- Otxandio: % 10,6
- Zaldibar: % 4,9

* Bizkaiko Foru Aldundiko Alkaside bilgunetik UEMARA jakinarazitako datuak

Anbotokide kuota % 30 merkeago 2024ko errenta aitorpenean

2024an Anbotokide kuota ordaindu zutenek % 30eko onura fiskala izango dute errenta aitorpenean

J.D. DURANGALDEA

Anbotokide izatea ANBOTOren komunitatearen parte izatea da, euskararen erabilera sustatzea eta herrigintzaren aktibazioan pausoak ematea. Baina, horrez gainera, Anbotokide egiteak hainbat abantaila du. Esaterako,

ANBOTOKIDE EGITEAK ABANTAILA GEHIAGO DU: DESKONTUAK SALTOKIETAN, ZOZKETAK...

% 30eko onura fiskala lortu daiteke 2024ko errenta aitorpena egiterakoan. Aurten batzen direnek onura berdina izango dute datorren urteko errenta aitorpena egiterakoan.

Euskara sustatzen egiten duen lanagaitik, ANBOTO komunikazio taldeak lehentasunezko mezenazgo jarduera izendapena du Bizkaiko Foru Aldundian, eta horren ondorioa da errenta aitorpenean lortu daitekeen onura fiskala.

Anbotokide egiteak beste hainbat abantaila ere badu: deskon-

tuak Durangaldeko hainbat saltokitan, lehentasuna eta deskontuak ANBOTO antolatutako jardueretan, egutegia doan jasotzeko aukera... Gainera, hainbat zozketatan parte hartzeko aukera dago. Apirilean hiru zozketa daude martxan, Anbotokide direnentzat bakarrik: Errigorako otzara bat, Basa Take Away jatetxeko eguneko menu bat eta Zornotzako Xiberu tabernan lagun birentzako gosari bi. Zozketa hauei buruzko informazioa www.anboto.org/zozetak atalean eskuratu daiteke.



Egin zaitez anbotokide!




Anbotokide direnek jasotzen duten txartela.



Etxe bakoitza historia bat da

Zure lehen etxea. Zurea bakarrik.
Zatoz Kutxabankera eta zure historiaz hitz egingo dugu.

Hipotekak

 **kutxabank**
Benetan.

"Gomendagarria da aitorpena aholkulariak lagunduta egitea"

URIBARRI AHOLKULARITZA BULEGOA AHOLKULARITZA FISKALA

Durangoko Zumalakarregi kalean dute bulegoa, garai bateko Foto Sol denda zegoen tokian. Laguntza ematen dute errenta aitorpena behar den moduan egin ahal izateko. 2024ko kanpaina apirilaren 10ean hasiko da



Gema Vidalek, Amaia Barrenetxeak, Andrea Lipatek eta Ines Amezagak Zumalakarregi 14. atarian dute Uribarri aholkularitza bulegoa.

Ekaitz Herrera ERRENTA AITORPENA

Laster helduko dira errenta aitorpena egiteko proposamenak Bizkaiko ogasunetik Durangaldeko etxeetara. Behar den moduan eginda ailegatuko dira askotan, eta buruko min bategaz edo bestegaz, beharbada, beste batzuetan. Durangoko Uribarri aholkularitza bulegoko kideek laguntza ematen dute errenta aitorpena behar den moduan egiteko. Gema Vidalek erantzun die ANBOTO-ren galderei.

Laster helduko zaigu errenta aitorpena egin ahal izateko gutuna Ogasunetik buzoira. Zergaitik da inportantea errenta aitorpena behar den moduan aurkeztea?

Aldaketak egiten dabilta Ogasuneko programan, eta daturen bat ondo ez egotea gertatu liteke. Hau da, datuetariko batzuk zehaztu barik agertuko dira proposamenean, eta guri egokitu zaigu horiek aitorpenean txertatzea. Alokairuan bizi bagara, adibidez, alokairuaren errenta ez zaigu islatuta ageri-

"AITORPENA EGOKI AURKEZTEKO BETEBEHARRA ZERGEDUNARENA DA, EZ OGASUNARENA"

ko, eta antzekoa gertatuko zaigu seme-alaben kasuan ere. Dena ondo begiratu behar dugu, eta falta dena ipini. Gomendagarria da behin, gutxienez, aholkulari publiko edo pribatu batengana joatea. Falta direnak eta ez direnak ikusten lagunduko digu.

Izan ere, aitorpena egoki egitearen ardura herritarrarena da, nahiz eta zirriborroa edo proposamena Ogasunak bidali hari.

Aitorpena behar den moduan egiteko betebeharra zergadunarena da. Jende askok uste du zirriborroa Ogasunak egiten duenez, akatsen bat dagoenean, ardura hori Ogasunarena dela,

baina hori ez da horrela. Ardu hori zergadunarena da, txarto zegoen zerbait baieztatu delako. Beste kasu batzuetan, Ogasunari dirua eman beharra egokituko zaio baten bati, baina beharbada ez du errenta aitorpena zertan egin. Horregaitik diot, behin, gutxienez, profesional batek lagunduta egitea lagungarria dela.

Zein kasutan gaude errenta aitorpena egitetik salbuetsita?

Ordaintzaile bat baino gehiago izan dugunean, eta kopuruak 14.000 euroko muga igarotzen ez duenean. Kasu horretan, ez gaude aitorpena egitera derrihortuta, baina horrek ez du esan gura egin ezin dugunik, guretzat egitea interesgarria izan daiteke eta. Salbuetsitako beste kasu bat ordaintzaile bakarra izan eta 14.000tik 20.000 eurora arteko diru sarrerak izatea da.

Zeintzuk dira kanpaina honetako nobedadeak?

Kenkariak, umeei eta desgaitasunari loturikoek, adibidez, igoera txiki eta orokortu bat izango dute, eta badirudi deflaktazio bat egongo dela oro har, hau da, % 2,5 gutxiago deklaratu beharko dugula aitorpenean. Bestalde, epigrafe berri bat sortu dute: bertsolaritzaren epigrafeak.

"KENKARIEK IGOERA TXIKI BAT IZANGO DUTELA DIRUDI; % 2,5 GUTXIAGO DEKLARATUKO DUGU"

Adibide praktikoak ipintzen hasita, hona hemen honako hau: demagun banandu egin naizela eta seme-alabak ditudala.

Lehenengo eta behin, zure bikotekide ohiagaz zelako hartu-eman duzun aztertu beharko litzateke, eta seme-alaben adina kontuan hartu. Izan ere, banaketa kasuetan kenkariak eta aitorpen bateratua ditugu aukeran. Gurasoek, oro har, kenkariak izango dituzte. % 50eko kenkaria bakoitzak. Alabaina, seme-alabak 18 urtetik beherakoak badira, umeak gurasoetariko baten aitorpenean agertu ahal izango dira, familia unitate modura, guraso bietako baten aitorpenean.

Beste kasu bat: demagun etxebizitza erosi dudala.

Kasu horretan, etxebizitzaren eskriturak beharko ditugu. Modu horretan, maileguari eta etxebizitzaren erosketari loturiko gastuak sartu ahal izango ditugu aitorpenean: notaritza gastuak, tasazio gastuak eta etxe-agentzien gastuak. Horrek guzti horrek balioa handituko dio etxebizitzari. Gainera, aintzat hartu beharreko beste kontu bat gurasoek edo baten batek etxea erosi ahal izateko utzitako dirua da. Partikularren arteko mailegu bat egin behar da, eta hori Ogasunean aurkeztu. Askotan, horrelako kontuak errenta aitorpena egin aurretik pentsatu behar dira, gerora gatzagoa izaten da-eta horiek aitorpenean islatzea.

Azken kasu bat: herentzia bat jaso dut.

Herentziak tributitzen ditugunean ez gabilta errentak tributitzen. Jendea askotan nahastu egiten da gai horregaz. Herentziaz etxe bat edo diru kopuru bat jaso baduzu, hori ez da errenta modura aitortuko, hori, jada, alde aurretik beste nonbait deklaratu ageri delako. Herentzian jasotako etxea saltzean, orduan bai, higiezin irten egiten delako gure ondasunen artetik. Kasu horretan, deklaratu egin beharko dugu.

Zergaitik da lagungarria zuen moduko aholkulari fiskalengana jotzea? Nobedade guztien berri dugulako, hainbat kasuz lan egiten dugulako, eta informazio ugari heltzen zaigulako; badakigulako zein gastu sartu eta zein ez. Beti da komenigarria errenta aitorpena baten batek gainbegiratzea, araudi zabala du eta.

Aritz Maldonado DURANGO

Orain arteko kontakizunetan arrakalak sortu, eta Artearen Historiaren ikuspuntuak ezagutzeko helburuagaz antolatu dute zaturako *Ahotsak* topaketa Durangoko Arte eta Historia museoan. Goizetik hasita, Dorleta Ortiz de Elgueak, Cristina Gutiérrez Meursek, Eugenia Tenenbaumek eta Isabel Mellenek berbaldiak emango dituzte, bakoitzak bere aldetik. Ondoren, elkarregaz egingo duten eta Garazi Arrizabalaga museoko zuzendariak gidatuko duen solasaldiagaz borobilduko dute ekitaldia. Mellenek *El sexo en tiempos del románico* liburua kaleratu du.

Zein paper zuten emakumeek garai erromanikoan?

Emakumeak artean izan duen garrantziaz hitz egiterakoan, arte garaikidera jotzeko ohitura dago. Erdi Aroko emakumeek euren desira, genero rolak eta bizitza oro har nola adierazten zuten azalduko dut; azken finean, nobleziako damak izan ziren tenplu edo elizen sustatzaile nagusiak. Oraindik ere gune erlijiozkoekin lotzen ditugu elizak batez ere, baina emakumeen azarna ere hor dago. Distantzia tenporalak ere eragiten du. Urrunago igartzen ditugu, eta informazioa galdu egiten da hori.

Zergaitik ezkutatu da hori?

Kasu honetan, nahiko agerikoa da: patriarkatuagatik. Ezagutza, edo egitura sozialak gizarteak eskatzen duenaren arabera erakitzen dira, eta, beraz, ezagutza inoiz ez da objektiboa, eta batzuetan, boteretik bideratuak egon daitezke. Erdi Arotik gaur egunera patriarkatuaren gorakadak egon dira eta emakumeak jokatzen dituzten rolak ez dira aldatu. Garaia patriarkala zen, hori egia da, baina malguagoa zen. Gizartean, emakumeek bazuten euren botere maila patriarkatuaren barruan. Gaur egun ere patriarkatuaren bizi gara emakumeok, baina duela 30, 40 edo 50 urte baino hobeto gaude. Kasu honetan, eremu konkretu bati buruz ari naiz, elizari buruz. XIX. eta XX. mendeetan elizak historian izan duen botere mailarik handiena izan zuen. Hezkuntza ere kontrolatzen zuen. Gerora ere jarraitu du horretan,

"Iraganaz berba egiten denean, emakumea kanpoan gelditzen da beti"

ARTEAREN HISTORIA Isabel Mellen (Gasteiz, 1986) filosofo eta arte historialaria emakumeen ikuspuntua kontakizun historikoan txertatu beharraz arituko da, besteak beste, Durangoko Arte eta Historia museoan egingo duten 'Voces' topaketan



Isabel Mellén. ISABEL MELLÉN

eta, beraz, esan daiteke emakumeak ikusezin bihurtzeko ahalegina egin duela; eliza emakumeak baztertzen eta azpiratzen saiatu da beti, eta horrek ez du bat egiten, adibidez, tenpluen eraikuntzen atzean emakumeak zeuden egitate historiko eta frogatuekin.

**Garai erromanikoan egitura misogino indartsuak garatu ziren, emakumeen boteretzeari erantzuteko. Gaur egun-
go olatu atzerakoiaren antza du?**

Prozesuek beste prozesu batzuk gogorarazten dituzte, garai guztietan gertatu direlako horrelakoak. Nik XI. eta XIII. mendeen arteko garaia ikertu dut, batez ere; erromanikoaren garaia. Nobleziako emakumeek botere handia zuten gizartean, genero rol konkretu batzuekin, eta gizonen beste batzuk zituzten. Emakumeak parte hartze handia zuten sozialki, eta, rol horien barruan, onartzen ziren euren jardun horiek. Goiko jerarkia elizkoiak ez zuten botere gehiegirik garai hartan, eta gehiago lortzeko, erreforma bat abiatu zuen XI. mendean. Sexualitatea kontrolatzeko saiakera egin zuen; zelibatua debekatu zuen, besteak beste, eliza barruko sexualitatea kontrola-

"EZAGUTZA INOIZ EZ DA OBJEKTIBOA, ETA BATZUETAN, BOTERETIK BIDERATUAK EGON DAITEZKE"

tzeko, eta gero, sexualitate laikoa kontrolatzeari ere ekin zion, emakumeen gorputzari zegokion, batez ere. Ugalkortasunak botere handia ematen zien garai-ko emakumeei, euren gorputzen bidez garatzen baitzituzten ondorengotzak, eta elizak hori kontrolatu nahi zuen. Beraz, elizak zuzenean eraso zuten emakumeen gorputzei, eta misoginia hori garatu zuen; olatu misogino hori XI. mendean hasi zen, baina eragina mende batzuk geroago igarri zen, XIII. mendean gehiago, eta nabarmen XV. eta XVI. mendeetan. Aldaketak, beraz, progresiboki gertatu ziren. Eta hor, bi pentsakera nabarmentzen dira, bitxiki; alde batetik, tradizionala, sexualitate guztiz libre bat bizi duena, eta bertan emakumeen botere maila handia dena; eta, bestetik, mentalitate misoginoa, berria zena, eta gaur egun *incel* mugimenduagaz paralelismoak dituena. Hau bezala, eliteak gidatua dagoen mugimendua da, gizonak kontrolatuta nahi dituzte, eta emakumeenganako gorroto hori gauzatu dezaten bideratzen dituzte diskurtsoak. Egia esan, gaur egungoarekin paralelismo asko ikusten dizkiot, *incel* horiek peoiak zirelako orduan, eta, gaur egun, burua jaten diete, eliteen onurarako. Distantzia historikoak horrelako prozesuak ikustea errazten du, eta gaur egungoekin paralelismo horiek ikustea lagungarria da, baina bitxia da: orduan berritasuna zen pentsamoldea tradizionala da gaur egun. Diskurtso hori itzuli nahian ari da, baina zailtasunak dituela uste dut; izan ere, aldaketak gertatzen direnean, zail da atzera egitea. *Incel* diskurtsoen atzean diru asko sartzen dute, eta bere garaian eliza zegoen bezala, gaur egun aberats batzuk daude. Ezer ere ez da kasualitatea edo espontaneo, goitik behera orkestratuta dagoen erantzun bat da.

Dekalogoia kaleratu duzue, kontakizun historikoan emakumeena ere kontuan hartzeko.

Horrelako erremintak beharrezkoak dira. Askotan tematzen dira berdintasun balioetan, baina beti errelato bera kontatzen dugu, eta hori interesatua da. Iraganaz gauza asko esan daiteke, eta laburtzera jotzen da. Eta, a ze kasualitatea, emakumea kanpoan geratzen da beti. Beraz, garrantzitsua da iraganaz beste ikuspegi batzuk ezagutzea, ez bakarrik gizon boteretsuena.

Marte Lasarte, Skakeitan taldearen errautsetatik

MUSIKA Pello Armendariz eta Borja Antón Skakeitan talde entzutetsuko musikarien proiektu berria da Marte Lasarte; Elorrioko Ateneoan kontzertua emango dute gaur, barikua, 'Ez da besterik' diskoaren aurkezpen biraren barruan; 22:00etan hasiko da

A. M. ELORRIO

Skakeitan desegin eta gero, euren kabuz proiektu berri bati ekitea erabaki zuten Borja Antonek eta Pello Armendarizek. Gerora batu ziren proiektura Alex Alonso (ETS, La Oreja de Van Gogh, Skakeitan...) bateria-jotzailea eta Lore Nekane Billelabeitia (Belako) baxu-jotzailea; biak ala biak esperientzia handiko musikariak. 2024aren amaieran, Durangoko Azoka izan baino zerbait lehenago kaleratu zuten *Ez da besterik*, euren lehenengo lan luzea. Aurkezpen-gutunik onena, sareko bideoklip egaz batera, izan ere, ez da erraza estilo konkretu batean kokatzea Marte Lasarte. *Post punk*, *dark pop*, *new wave* eta musika elektrikoa jorratzen dituzte, batetik bestera naturaltasunez jauzi eginez. Musikagintzan urte hauetan egindako hainbat lagunek ere parte hartu dute diskoaren grabazioan. Besteak beste, Olatz Salvadorrek (Skakeitan aritutakoa), Sara Zozayak, Jonatan Quiñonesek eta



Marte Lasarte. ERIK SUSO

Aitor Valcarlosek kolaboratu dute bertan. Diskoa osatzen duten zortzi kantak Usurbilen (Gipuzkoa) grabatu dituzte, Haritz Arreguyk han duen estudioan.

Diskoaren aurkezpen biran, laukoteak kontzertua emango

du Elorrioko Ateneoan, gaur, barikua, 22:00etan. Ondoren, ohikoa den moduan, etxeko musika jartzaileek girotuko dute gaua. Marte Lasartek EHZ, Herri Urrats eta Aiara fest jaialdietan ere joko du, besteak beste.



Bizkaiko Eskolarteko parte hartzaileak. BIZKAIKO BERTSOZALE ELKARTEA

Kelmene Abaitua, Bizkaiko Eskolarteko lehenengo sailkatua

BERTSOLARITZA Kelmene Abaituak batu du punturik gehien Bizkaiko Eskolarteko lehenengo kanporaketan

A. M. DURANGO

Hasi da Bizkaiko Eskolarteko Txapelketa. Galdakaon izan da lehenengo kanporaketa, eta Kelmene Abaitua bertsolari berritarrak bildu du punturik gehien; Abaituaz gainera, Unai Adana, Amaur Betanzos, Beñat Enbeita, Irati Gallastegi eta Oiar Zugadi igo ziren oholtzara. Peru Vidal aritu zen gai jartzaile lanetan, eta Garazi Mendoza, Juanjo Respaldiza eta Beñat Romero izan ziren epaileak.

Bizkaiko Eskolarteko Txapelketak lau kanporaketa izango ditu. Geratzen diren hiru saioak

apirilaren 2an (Gordexolako kultur etxean), 7an (Igorreko Lasarte aretoan) eta 9an (Durangoko Kurutziaga Ikastolan) izango dira.

Finala Iurretan

Saio bakoitzeko irabazlea zuzenean sailkatuko da finalera, eta gainerako zazpi bertsolariak puntuazioaren arabera erabakiko dira. Finala maiatzaren 31n izango da, Iurretan. 10:00etan nagusien eskolarteko idatzizko finala izango da, eta ondoren, 11:30ean, bat-bateko finaleko zortzikoteak egingo du bertsotan.



GAI LIBREAN

AINHOA OLASO SOPELANA BEHARGINA

Bizigogo herrena

Ez dakit zein unetan galdu duen linealtasuna denborak. Ez dakit fikzioa eta errealitatea nahasten ari garen. Agian lehenago ere lekukoak izan gara eta ez dut oroitzen. Baina atzo hasi zen eguna ez da oraindik amaitu, eta baten batzuek behintzat hemen jarraitzen dugu.

Denontzat nahikoa toki dago eta ez gara gauden lekutik ateratzeko gai izan. Uneoro dago jana eta edana mahai gainean. Irratiak soinu banda osatzen du gure berbaldien azpitik, isiltasunaren beldur izango bagina bezala. Eguzki izpien beroa jaso dugu, edo beroa baino gehiago, argia da jaso duguna oraingoz... Baina domestikatutako arnasaren erritmoa baretu zaigu, estutasunak eta prisak sendatuz.

Badakigu, zereginen akumulazioaren errutina betean, bata dela edo bestea dela, zentzu gorenaren bilaketa aldiro oztopatu egiten zaigula. Jakin badakigu, asko

**"ETA JAKINA DA,
ZAILTASUNA, OROKORREAN,
NEKETSUA DELA ETA
MIN EMATEN DUELA"**

fantasia autogeneratuetatik bizi garela bizitzaren politizazioaren gainbehera honetan. Eta jakina da, zailtasuna, orokorrean, neketsua dela eta min ematen duela. Ba al dago inor hemen honek ilusioa inspiratzen dionik?

Garai honek ezin baitio arinkeriaz gainproduzitutako ezer gehiagori eutsi, ezin dugu etengabe iraungitzen diren azaleko ideia eta praktikekin jarraitu eta jada ez da alegantziaren alde egingo ez duenik kabituko.

Eta momentuari heldu nahian, biziraupen sen batek, egoeraren balio erantsia birkalifikatzeko saiakeran hasi gara. Edertasunaren edozelako desitxuratzeak saihestu eta biharamunari zentzu osoago bat ematen jarraitu dugu. Eta kontzientziaz, baina batez ere pasioz, bizigogo zurrutada batean edan dut, zurrup! Dena iristen da, gauza onak ere bai.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTEN EGUERDIA BAINO LEHENAGO. Tel.: 946 232 523 / agenda@anboto.org

BARIKUA 4

ABADIÑO BakarrizketaAna Goitia.
Errota kultur etxean, 19:30ean.**ABADIÑO Erakusketa**'La vida en el centro, una mirada feminista sobre la economía solidaria' (REAS Euskadi).
Errota kultur etxean, apirilaren.**BERRIZ Kontzertua**Lionels
Aledi tabernan, 19:30ean.**DURANGO Erakusketa**Aratz Azpiri eta Gerard Cullell.
Ezkurdi aretoan, apirilaren 6ra arte.**DURANGO Erakusketa**'Emakumeak aberria eginez'.
San Agustin kulturguneko atarian, apirilaren 15era bitartean.**DURANGO Erakusketa**'Durango, 1937ko martxoaren 31, asteazkena' (Romá Arranz).
Kuruzesantu museoan, apirilaren 6ra bitartean.**DURANGO Liburu aurkezpena**'Politeismo bastarta'
(Jule Goikoetxea).
Plateruenean, 18:30ean.**DURANGO Bakarrizketa**Kike Biguri.
Otamotzena auzogunean, 19:00etan.**ELORRIO Erakusketa**'Liburuaren arbola' (Euskararen Etxea).
Liburutegian, apirilaren 25era arte.**ELORRIO Erakusketa**Manuel Moreno San Román
margolariaren lanak.
Iturri kultur etxean, apirilaren.**ELORRIO Kontzertua**Marte Lasarte taldea.
Ateneoan, 22:00etan.**ELORRIO Solasaldia**Julien Bizirik plataforma. Ondoren,
pintxopotea eta akustikoa: Uxue.
Gaztetxean, 19:30ean.**IURRETA Antzerkia**'Amamaren irrifarra' (Eidabe).
Ibarretxe kultur etxean, 18:00etan.**IURRETA Kontzertua**Bisai + Dena + Malakias MX3.
Gaztetxean, 22:00etan.**IURRETA Kontzertua**Garry.
Korta tabernan, 20:30ean.**MALLABIA Berbaldia**'Zergaitik hezkuntza feminista Euskal Herrirako'
Herriko elkartearen, 19:00etan.**OTXANDIO Berbaldia**'Poliziaren funtzioa eta autoritarismoaren gorakada'.
Gaztetxean, 18:00etan.

ZAPATUA 5

ABADIÑO Azoka2. Eskuko Azoka.
Amarau Arte Fabrika (11:30-15:00).**BERRIZ Kontzertua**Kohatu taldea.
Kultur Etxean, 19:00etan.**DURANGO Ahotsak topaketa**Dorleta Ortiz de Elguea, Isabel Mellén,
Eugenia Tenenbaum eta Cristina
Gutierrezen arte-liburuaren aurkezpenak.
Mahai-ingurua, 19:00etan.
Arte eta Historia Museoan, 11:30ean.**DURANGO Udaberri Festa**Vermouth txapelketa eta Mariatxiak,
13:30ean.
Paella doan, 15:00etan, tabernetan.
Sugari fanfarrea, 17:00etan.
80ko hamarkadako musika, 20:00etan.
Alde Zaharreen.**DURANGALDEA Antzerkia**Khea Ziater konpainiak *Scrooge eta mamuak* obra taularatuko du eskualdean. Charles Dickens *Christmas Carol* liburuaren egokitzapen librea da eta Alex Gerediagak zuzendu du lana.
Apirilaren 4an, barikua, Berrizko Kultur Etxean, 17:00etan
Apirilaren 5ean, zapatua, Zornotza Aretoan, 17:30ean.**DURANGO Dantza**'Lana' (Osa+Mujika).
San Agustin kulturgunean, 19:00etan.**GARAI Jaia**Sagardo Eguna.
Plazan, 18:30ean.**IURRETA Bizikleta Irteera**Nabarnizera irteera.
Iurretan, 09:00etan.**IURRETA Kontzertua**Miren Fernandez&Iñaki Miguel.
San Marko auzoan, 18:00etan.**IURRETA Kontzertua**Rockin Ricky Hillbilly Trio.
Korta tabernan, 20:00etan.**MALLABIA Bertsoak**Poteo feminista, 18:00etan, Herrikoan.
Berto saioa: Araitz Katarain, Irune Basagoiti, Kelmene Abaitua eta Ixone Asategi. Gai-jartzailea: Elorri Katarain.
Herriko elkartearen, 19:00etan.**OTXANDIO Urteurrena**Arkotxe Elkartearen 20. Urteurrena.
Sagardotegia. Ondoren, Igor Elortza eta Eneko Abasolo 'Abarkas' bertsolariak. Eta Xabi Aburruzagaz erromeria.
Arkotxen, 14:30ean.

DOMEKA 6

ABADIÑO BertsoakBerto poteoa: Onintza Enbeita, Eneko Abasolo 'Abarkas' eta Bittor Altube.
Txanbolin txistulari taldeak girotuta.
Zelaietako Larranon, 12:30ean.**ABADIÑO Kontzertua**Kokein taldea.
Amarau Arte Fabrikan, 13:30ean.**DURANGO Kontzertua**Tabira Musika Banda.
San Agustin kulturgunean, 19:00etan.**IURRETA Bizikleta irteera**Aulesti-Lekoitz irteera.
Iurretan, 09:00etan.**ZORNOTZA Otxoteak**Bilbao Argia eta Zornotzako Otxotea.
Tabernarik taberna, 12:00etan.

ASTELEHENA 7

ZALDIBAR Berbaldia'Mendiaren altzoan' (Hizlaria: Oihana Azkorbebeitia).
Liburutegi zaharreen, 18:30ean.

EGUENA 10

ABADIÑO KontzertuaGarratz taldea.
Amarau Arte Fabrikan, 19:30ean.**ZALDIBAR Berbaldia**'Mikel Perez perdido en las tribus' (Hizlaria: Mikel Perez).
Liburutegi zaharreen, 18:30ean.**ZORNOTZA Musika**Paris Slim musikaria.
Zelaieta zentroko kontzertu gelan, 20:00etan.

ZINEMA

ABADIÑO

TXANPORTA KULTUR ETXEA

The Farewell

Domeka 6: 18:30. (Ondoren, solasaldia Generación Banana podcastaren Ouyang Zhure sortzaileagaz).

BERRIZ

KULTUR ETXEA

Por todo lo alto

Domeka 6: 19:00.

DURANGO

ZUGAZA ZINEMA

MinecraftBarikua 4: 18:00, 20:30.
Zapatua 5: 17:00, 19:15, 21:30.
Domeka 6: 17:00, 19:30.
Astelehena 7: 18:00, 20:15.
Martitzena 8: 18:00, 20:15.
Eguaztena 9: 19:00.**Guillermo Tell**Barikua 4: 17:45, 20:30.
Zapatua 5: 19:00, 21:30.
Domeka 6: 19:30.
Astelehena 7: 17:45, 20:15.
Martitzena 8: 17:45, 20:15.
Eguaztena 9: 19:00.**Por todo lo alto**Barikua 4: 18:00, 20:30.
Zapatua 5: 19:15, 21:30.
Domeka 6: 19:30.
Astelehena 7: 18:00, 20:15.
Martitzena 8: 18:00, 20:15.**Blancanieves**Zapatua 5: 17:00.
Domeka 6: 17:00.**Kaixo Frida!**Zapatua 5: 17:00.
Domeka 6: 17:00.**Turandot (opera)**

Eguaztena 9: 19:00.

ELORRIO

ARRIOLA ANTZOKIA

A complete unknownZapatua 5: 20:00.
Domeka 6: 20:00.
Astelehena 7: 20:00.**Looney Tunes. Lurraz eztanda**egin zuen eguna
Domeka 6: 17:00.

OTXANDIO

KULTUR ETXEA

Hiru handiak. Taupadak eta gailurrak

Zapatua 5: 18:00.

ZORNOTZA

ZORNOTZA ARETOA

Etxanoko herriari

Barikua 4: 19:00.

Tierra de nadieDomeka 6: 20:00.
Astelehena 7: 20:15.**Basatiak**

Domeka 6: 17:00.

Nosotros

Martitzena 8: 20:15.



Joseba Derteano BERRIZ

Eider Garcia errugbilaria Durangaldeak goi mailako kirolean duen ordezkari nagusietarikoa da, 20 urte baino ez dituen arren. DRTn hezi zen eta adinez nagusi izan aurretik Lehenengo Mailan jokatzeko zuten, Eibar Rugby Taldeagaz. Azken urte biak Pirinioz beste aldean eman ditu, Frantziako liga nagusian, Lyongo Lou taldean. Iazko azarotik hona, Espainiako selekzioako deialdi guztietan egon da, eta, orainsu, partidu ofizial batean debutatu du, Torrevejian (Valentzia). Partidu horretan, 41-12 menderatu zuten Brasil.

Brasilen kontra 67. minutuan zela iratu zinen. Zelan gogoratzen dituzu jokaturiko une horiek?

Bagenekien partidu gogorra izango zena, brasildarrak jokalaririk handiak direlako. Partidua ondo hasi nuela esango nuke, urduri nengoen arren. Familia ere partidua ikustera etorri zen. Izan ere, aitaren senitartekoak Torrevejian bizi dira. Zelaia ezagutzen nuen, joan zen udan hantxe entrenatu nintzen eta. Egia esanda, txikitatik Torrevejian igaro ditut udak.

Europako txapelketa hasita dago. Zer helburu duzue?

Helburua irabaztea da. Espainiako selekzioak askotan irabazi du Europako Kopa. Kontuan hartu behar da Espainia ez dagoela Sei Nazioetan edo antzerako batean, txapelketa pribatuak direlako, eta gainerako taldeen oso gainetik dago. Une honetan Herbehereak dira aurkari nagusia, azken urteetan gorakada handia izan duen selekzioa. Guretzat garrantzitsua da partidu bakoitzean dena ematea, munduko txapelketerako prestakuntza lez.

Munduko txapelketan zein izango da helburua?

Zeelanda Berria, Irlanda eta Japonia daude gure multzoan. Talde indartsuak dira, profesionalak. Helburua ahalik eta lanik onena egitea izango da, eta, zergaitik ez, talderen bati irabaztea.

Orain urte bi, Eibar Rugby Taldetik Lyongo Lou taldera batu zinen. Zelan sortu zitzaizun aukera?

Selekzioako taldekide batek esan zidan Frantziako talde bat nire postuko jokalaririk bila zebilela. Eurekin berba egin nuen, proposamen erakargarria iruditu zitzaidan eta harantz joan nintzen. Azkenean, Batxilergoa

"Taldekideek magia egiten zutela sentitzen nuen hasieran"

EIDER GARCIA FUENTES (BERRIZ, 2005) ERRUGBILARIA

Garcia urte bi daramatza Frantziako liga nagusian jokatzeko. Orainsu, munduko rankingerako puntuagarria den partidu batean debutatu du Espainiako selekzioagaz



Azarotik hona, Espainiako selekzioako deialdietan egon da.

amaitzeaz nengoen eta ez neukan garbi ikasketetan zer bide hartu. 18 urte egin berritan, tren hori hartu beharra neukala sentitu nuen, esperientzia bizitzeko eta profesional legez jokatzeko. Gurasoen babesa izan nuen eta joatera animatu ninduten.

Ez zen talde aldaketa bakarrik, baita bizimodu aldaketa ere.

Bai, aldaketa handia izan zen. Erabakia hartu nuenean banekeen gauzak aldatuko zirena. Baina ez nintzen kontziente zein punturaino aldatuko zitzaidan bizimodu eta zein punturaino aldaraziko ninduen ni neu. 18 urteagaz, bizimodu eroso batetik irteten eta bakarrik bizitzera pasatu nintzen. Beste herrialde bat, beste kultura bat..., frantsesik jakin barik, gainera. Errealitate dosi latza izan zen. Baina, aldi berean, esperientzia hau ondo etorri zait. Denbora honetan pertsona legez asko hazi naizela sentitzen dut. Badakit edozein egoerari aurre egiteko kapaz naizena.

"LYONEN DARAMADAN DENBORA HONETAN PERTSONA LEGEZ ASKO HAZI NAIZELA SENTITZEN DUT"

Eta jokalaririk legez zelan aldatu zara?

Arlo honetan ere aldaketa ikaragarria izan da. Jokalaririk handiagoak dira hangoak, eta jokoa bera askoz ere arinagoa da. Dena da handiagoa eta azkarragoa. Hasierako entrenamenduetan taldekideek magia egiten zutela sentitzen nuen. Horrelakorik ikusi bakoa nintzen. Horrek jokalaririk legez hobetzera eraman ninduen. Han, errugbia hemengo futbolaren parekoa da. Lehiakortasun handiagoa dago. Lyonek futbol talde indartsua du, Olympique Lyonnais, baina, hala ere, emakume asko dabil errugbian.

Atera daiteke bizimodu emakumeen errugbiko lehen mailan jokaturik?

Emakume gutxi bizi da errugbitik. Selekzioagaz dabilzanak, esaterako. Errugbia beste lan batzuekin bateratzea da normala. Nire taldekide guztiak ikasten edo beste lan batean dabilza. Gure denborarik gehiena errugbiari eskaintzen diogula eta hortik diru apur bat datorkigula, horixe esan gura du 'profesional' izateak guretzat. Beste era bateko gauzak ere jasotzen ditugu: gimnasio onak, entrenatzaile onak... Eta bizitzako esperientzia.

Hizkuntzaren traba gaindituta dago?

Bai, gaindituta dago. Hasieran txarto pasatu nuen, lotsa handia ematen zidan. Baina orain oso ondo moldatzen naiz frantsesez. Azterketa baterako prestatzen nabil.

Taldekideen artean, Frantziatik kanpoko jokalaririk asko dago?

Espainiako, Suitzako eta Italiako jokalaririk daude. Beraz, kanpoko ere badago, baina ez da Espainian bezain ohikoa. Frantziatik fitxaketa gutxiago behar dute, jokalaririk asko dago eta.

Zelan doa ligako denboraldia?

Ez gabiltza gura genukeen bezain ondo. Hamar taldetik zazpigarren goaz. Aurten talde bakarra jaitziko da, eta, alde horretatik, ez dugu arriskurik. Hiru partidu geratzen dira eta ea seigarren postura igotzen garen.

Denboraldia hasieran gorago ibiltzea zen helburua?

Bai, espektatiba handia geneukan, iazko denboraldia oso ona izan zelako. Ligako final-laurdenak jokatu genituen. Taldea hain gora heltzen zen lehenengo aldia zen. Aurten aldaketa asko egin da, eta, egia esanda, kostatu egin zaigu egoerara egokitzea.

Biharko Izarrak martxan da, Aingeru Bernaolagaz

PILOTA Pilotari mañariarra da Durangaldeak Mallabiko txapelketan izango duen ordezkari bakarra. Atzelaria finalerdietara heldu zen iaz, baina aurten ez dago hain sasoi puntu onean. Txapelketak aurrera egin ahala konfiantza hartzen joatea du helburu

Joseba Derteano MALLABIA

Bart gaueko lehenengo jardunaldiagaz, dagoeneko martxan da Mallabiko Biharko Izarrak txapelketaren 21. aldia. Aurreantzean, eguenero egongo dira partiduak ekainaren 6ko finalera heldu arte.

Gizonetan, 16 pilotari lehiatuko dira binaka, multzo bitan banatuta. Joko sistema urteroko bera da: ez dago bikote finkorik. Horixe da Mallabiko txapelketa berezi egiten duena. Durangaldeak ordezkari bat izango du: Aingeru Bernaola mañariarra. Aurten, bigarren parte hartuko du. Iaz finalerdietara heldu zen, lehenengo faseko partidu guztiak irabazita. Aurten, oraingoz behintzat, txapelketak ez du hain puntu onean harrapatu. "Une honetan ez nago nire jokorik onenean. Partiduak jokatu ahala jokoa eta konfiantza hartzea dut helburu", adierazi du mañariarrak. Oraintsu, Bernaolak Euskal



Biharko Izarrak txapelketaren aurkezpena.

Herriko Pilota Txapelketa irabazi du Ohorezko Mailan, Xabi Rekaldegaz bikotea osatuta.

Lau emakume

Emakumeen txapelketak lau garren aldia egingo du aurten,

eta lau pilotari arituko dira lau eta erdiaren barruan: Zabaleta, Ibarrola, Arraiza eta Gaminde. Denek denek kontra jokatu dute ligaxkan, eta bi pilotaririk onenak finalerako sailkatuko dira.



Zaleak Anboton gora doan korrikalaria animatzen Anboto Kilometro Bertikalean.

Sorginen Lasterketa eta Kilometro Bertikala asteburu berean aurten

MENDI LASTERKETA Urriaren 4an eta 5ean izango dira probak, Atxondoko Mendi Asteburuaren lehenengo aldiaren

J.D. ATXONDO

Aurten, lehenengoz, Anboto Kilometro Bertikala eta Sorginen Lasterketa asteburu berean bateratu dituzte, elkarlanari indarra emanda. Lehenengoa urriaren 4an izango da, eta bigarrena urriaren 5ean. Halantzik jakinarazi dute proba bietako antolatzaileek. Gainera, asteburu hori berbaldiekin eta beste ekin-tza batzuekin osatuko dute, Atxondoko I. Mendi Asteburua izenburupean. Esaterako, urriaren 3an berbaldi bi izango dira Apatako eskolan: nutrizioaren ingurukoa Garazi Abasologaz,

eta kirol psikologiaren gainekoa Itsasne Blancogaz. Hurrengo egunean, Mattin Iñiguez parapentelariaren film laburra ikusteko aukera egongo da toki berean.

Autokarabanen gunea

Asteburu osoan zehar, Martzaa auzoko lautadan gune bat egokituko dute furgonetentzat eta autokarabanentzat, kanpotik datorren jendeak asteburua pasatzeko aukera izan dezan. Eta lasterketa egunetan doako garraio zerbitzua eskainiko dute gune horretatik Arrazolara eta Axpera.



JOKALDIA

AITOR ARABIOURRUTIA OBREGÓN TRINKETA

Federazioen arteko txapelketa

Beste urte batez, hasi da federazioen arteko pilota txapelketa. GRAVNI izenez ezagutzen dugun txapelketa oso ospetsua da pilota munduan. Bertan, federazioek beren kapazitatea eta kirol-potentzia frogatzen dute besteen aurrean, eta federazioetako kirol arduradunentzat oso txapelketa baliotsua da bakoitzaren gaia neurtzeko.

Dozenaka txapel izango dira jokoan ezker pareta eta trinketeko modalitateak kontuan hartuta, asteburu-asteburu izango ditugu partiduak maiatzeko lehenengo asteburuan finalak jokatu arte. Trinketeko modalitatean, Durangaldeko hainbat pilotari ditugu Bizkaiko selekzioarekin parte hartzen eta txapelak lortzeko borrokan, hala nola Asier Aspuru abadiñarra, Igor Paskual zaldibartarra, Ibai Arroitauregi iurretarra eta Luken Atutxa elorriarra. Hauek denak esku-huskan parte hartuko dute. Zorte on denei!

Hala ere, aurten arazo dezente izan dira txapelketa aurrera ateratzeko. GRAVNI txapelketan Gipuzkoa, Errioxa, Araba, Bizkai, Nafarroa eta Iparraldeko federazioek parte hartzen dute, eta azken boladan Espainiako pilota federazioak eta Euskal Herriko pilota federazioak ofizialtasunaren harira izandako aferagaitik, Errioxako eta Nafarroako federazioen parte-hartzea kolokan izan da azken momentura arte Espainiako federazioaren mehatxuengaitik. Badirudi urak baretu direla (momentuz,

"ERRIOXAKO ETA NAFARROAKO FEDERAZIOEN PARTE HARTZEA KOLOKAN EGON DA AZKEN UNERA ARTE"

behinik behin) eta txapelketa jokatzeko ez dutela arazorik izango, baina ikusi behar zelan igaroko den amaitu arte. Bitartean, pilotaria galtzaile, beti bezala.

Berdin du pilota enpresa handia izan edota pilotari amateur izan, esku huskan aritu edota palan... azken asteetan berri txar asko izan dira: Innpala enpresa eta berau osatzen duten palisten etorkizuna nahiko beltza ikusten da, Iker Elizegi pilotariari ez diote BAIKO enpresan kontratua luzatu eta erabaki honen harira enpresak izandako jarrera nahiko itsusia plazaratu da, binakako lehen mailako txapelketan Aitor Aranguren atzelaria azken jardunaldian kanpoan uzteko erabakia... eta honi guztiari Nafarroako eta Errioxako pilotarien ezinegona GRAVNI txapelketarako gehitu behar zaio. Argi dagoena da, pilotarion batasunik barik, goiko estamentuen interesak gailenduko direla eta inoiz baino behar gehiago dagoela batasun honetarako.

KOMIKIA UNAI GAZTELUMENDI



GUARDIAKO BOTIKAK

APIRILAK 4, BARIKUA

09:00-09:00

Gaztelumendi, J.A. Abasolo 2 - Durango

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

APIRILAK 5, ZAPATUA

09:00-09:00

Irigoien, Bixente Kapanaga 3 - Iurreta

Inuarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

APIRILAK 6, DOMEKA

09:00-09:00

Sarria, Sasikoa 17 - Durango

Inuarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

09:00:22:00

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

APIRILAK 7, ASTELEHENA

09:00-09:00

Unamunzaga, Muretatorre 2C - Durango

Inuarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

APIRILAK 8, MARTITZENA

09:00-09:00

Campillo, Montevideo etorb. 24 - Durango

Inuarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

APIRILAK 9, EGUAZTENA

09:00-09:00

Balenciaga, Ezkurdi plaza 8 - Durango

Inuarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

APIRILAK 10, EGUENA

09:00-09:00

Etxebarria, Montevideo etorb. 2. - Durango

Inuarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

24 orduz zabalik dauden farmaziak dauden zerrendan.

22:00 arte zabalik daudenak ere ikusteko: www.anboto.org/botikak

ZORION AGURRAK

**GOZATU GOZOTEGIA**

Ermodo, 11 DURANGO

Tel.: 946 201 663

gozatudurango@gmail.com

☎ 661 40 14 00

f Gozatu Gozotegia

📷 gozatugozotegia

**Martin Egia**

Martxoaren 31n, 3 urte.
Martxoaren 31n Martintxuk 3
urte egin zituen. Zorionak etxeko
guztion partez. Mosu handi bat!

**Eneko Abasolo**

Zorijonak, aitaxo! Egun politte
pasau eta txokolatada handi eta
gozoa preparau. Mosu potolo
bat Amaiur eta Aranen partez.

Urte askotarako!

Zorionak Udane, Izar eta Ibaia (1016.alea)! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako

Zoriondu itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

Internet

Anboto.org-en erabiltzailea sortu eta Anboto.org/ zorianagurak helbidean sartu zorian agurra.

Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta barikuan Anboto paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorianagurak@anboto.org helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urteguna eta gura duzun testua.

Ordezkaritzak

Etorri zaitez Anbotoren ordezkari zara edo deitu 946 232 523 telefonora.

EGURALDIAREN IRAGARPENA



Apirilak 4, barikua.

AgroPaper®
NEKAZARITZA
JASANGARRI BATERAKO
NEGUTEGIA



 Smurfit Westrock

OSTALARITZA GIDA



IURRETA

GAUARGI



Dantzari, 4 behea
Tel.: 944 356 674

Eramateko tortilla bereziak. Barikuetan mollete eta errazioak. Domeketan rabak eta askotariko errazioak.

 @gauargitaberna

ZORNOTZA

XIBERU



Zezenia Gallartzagoitia, 9
Tel.: 946 181 758

Gosari bereziak egunero, pintxopotea ostegunero eta afariak astebururo. Giro alai eta atsegina. Ongi etorri Xiberura.

 Xiberu Taberna
 @xiberutaberna

DURANGO

BASA Eroateko janaria



Untzilatx, 9
Tel.: 747 421 104

Eguneko menua edonora eroateko prest, gure sukaldean bertako produktuekin prestatuatako plater gozo-gozoak. Begiratu gure instagramean.

 @basa.durango





DURANGO

OLAJAUREGI



Kurutziaga, 52
Tel.: 946 200 864

Eguerdiastegunetik igandera (13:00-15:30)
-Eguneko menua 19,90€
-Dastatzeko menua 45 €
-Karta
Gauetan ostegunetik larunbatera (20:00-22:30)
-Mokadu karta
**TERRAZA ZABALIK: 12:00 - 00:00

 Hotel Olajauregi
 @hotel_olajauregi_jatetxea



LAU-HORTZA

SERGIO MURILLO
CORZO

Fabrikatik fabrikara

Durungaldeko jarduera ekonomikoaren heren bat baino gehixeago (% 35,8) industriari oinarritzen da. Gure ingurua fabrikaz ondo hornituta dago, beste euskal herrialdeekaz alderatuz bereziki (% 25 inguru). Fabriketan eskaintzen diran ordainsariak eta egonkortasuna ohi baino hobekak dira eta, neurri baten, eskualdean daukagun eros-ahalmen nabarmena azaltzen dabe.

Garai zailak datoz gure industriaren zati handi batentzat. Epe laburrean, aldagai geopolitiko globalek eragin handia eukiko dabe euren lan kargan, muga-zergeak esaterako. Epe ertainean ere, gure inguruan daukagun autogintzako industria jauzi teknologiko barria egitera behartuta dago, besteak beste, erregai barriztagarriak lehenestea datorrelako. Holan bada, Ibaizabal erreka ibilguan, beheraxeago, Basaurin, auto gurpilak ekoizten dauzan enpresak iragarritako barri kezkarrien itxurako beste batzuk zabaldu daitezke ibaian gora.

Holan izanagatik ere, epe luzera begira industriari oinarritzen jarraitu behar dogu gure jarduera ekonomikoa, bizi-kalitate maila altua bermatze aldera. Beraz, atzerapezik barik, etorkizuneko fabrikak diseinatzeko eta errotzeko egitasmo estrategikoen garaia ere bada Durungaldean.

AKUILUA



"Urriken sinistu izana eskertu gura diet bezeroei"

ASUN LOPEZ ALONSO LIBURU SALTZAILEA

45 urte liburu saltzaile legez aritu ondoren, Lopezek etapa berri bati ekingo dio ekainean. Denbora hartuko du irakurtzeko, eta euskara eta ingeleza hobetzeko

Aitziber Basauri DURANGO

Urriker liburu dendak 1981ean zabaldu zituen atek lehenengoz, Frai Juan Zumarraga kalean. Asun Lopezek (Durango, 1959) familia negozioko —Iurretako Casa Paco taberna— lanagaz uztartu zuen liburu dendako lana urte askoan. 2003an, Kalebarriara lekualdatu zuen liburu denda, negozioari irtenbide komertzial hobea emateko. Paperezko liburua digitala baino gurago du; poltsan bat darama beti.

"URRIK EK BALIO HANDIA DUELA USTE DUT, LIBURU DENDA EZAGUNA DA ETA ONDO LAN EGIN DUGU"

Urriker utzi eta etapa berri bati ekingo diozu. Erabaki gatxa izan da?

Bai. Bizitza guztia daramat liburu saltzaile legez, gustuko dudana lana egiten. Baina, geratu ezean, noiz arte jarraituko dut, ba! Erabakia hartzeko momentua heldu da. Pena apur bat bategaz nago, baina pozik aldi berean. Liburu denda hartuko dutenek primeran egingo dute. Hunkigarria eta atsegina da bezeroei entzutea nire falta sentituko dutela eta lanean jarraitzea gura luketela. Baina ulertzen dute urte asko

izan direla. Bezero legez bueltatuko naiz. Nigan sinistu izana eskertu gura diet bezeroei, eta Urriker izandako konfiantzari eustea eskatu.

Liburu dendak beste esku batzuetan jarraituko du. Garrantzitsua zen Urriker bere bidea egiten jarraitzea?

Bai. Urriker balio handia duela uste dut. Liburu denda ezaguna da eta ondo lan egin dugu. Bezero asko dugu eta ez genituen umezurtz utzi gura. Arduradun berriak gogoz eta ilusioz daude negozioa hartzeko. Ondo joatea eta disfrutatzea espero dut. Zerbait momentutan sufritzea ere tokatuko zaie, nik sufritu dudana moduan. Bizitzan legez.

Magisteritza ikasi zenuen.

Baina irakasle ez izatea erabaki nuen. Ardura handia da!

Urte hauetan guztietan, aldatu egin da bezeroa?

Ez, Durango hiri txikia da, denok elkar ezagutzen dugu. Bezero kopurua handituz joan dela esango nuke.

Zerk du arrakastarik gehien?

Hori bestseller eta publizitatearen menpe dago eta liburu batzuk derrigor eduki behar dira. Bestalde, liburuak eroslearen nahieran ekartzen ahalegintzen naiz.

Jendea bestseller bila dator?

Jakina! Ibon Martin, Ken Follett... Baina bestelako liburuak ere asko irakurtzen dira: narratiba, saiakera...

Zer irakurtzen duzu zuk?

Denerik apur bat. Orain, *Amor Capital* irakurtzen nabil, Carmele Jaiorena.

Jaitsi egin da irakurzaletasuna?

Sasoi batean nahiko jaitsi zen, baina gazte jende asko etortzen da liburuak erostera. Gainera, gaur egun oso edizio politikak eta zainduak egiten dituzte.



SAN ROKE BARRIA

Bizimodu berri bat Durangon.

Zure hitzordua eskatu:
946 462 041
sukia.com

2. Fasea eraikitzen hasi gara.

sukia
Zure etxean zaudu. Estás en tu casa.